

Urtekaria 2024



Urteak
utzi
duena

Korrika urtea izan da 2024a. Euskalgintzan, ekonomian, politikan, gizartean, kulturean zein kirolean Goierriekin lotutako albiste ugari utzi ditu joan berri den urteak.



EUSKARA, BIZI
Lazkao 24/25 maizpide.eus

Boto gehien EH Bildurentzat

● **Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan 14.521 boto lortu zituen koalizioak Goierrin.**

● **Europako Parlamenturako hauteskundeetan ere nagusitu zen.**

K.G./L.G.

GOIERRI— Apirilaren 21ean egin ziren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian. 53.461 goierritar zeuden deituta hauteskundeetan parte hartzera. EH Bilduk jaso zituen bozka gehien, ia bi babesetatik bat: guztira 14.521 boto. Eskualdeko 22 herrietatik hogeitan izan zen zerrenda bozkatuena, eta soilik bitan (Beasainen eta Olaberrian) irabazi zuen EAJk.

Aurreko hauteskundeetan ere boto gehienak EH Bildurentzat izan ziren Goierrin, baina 2024koetan nagusitasun handiagoarekin gailendu ziren. Bigarren zerrenda bozkatuena EAJ izan zen, eta hirugarrena PSE-EE. 14.521 bozka horiekin, hautesleriaren %45,3 bereganatu zuen koalizio ezker independentistak bailaran; jeltzaleek 11.090 bozka jaso zituzten, guztizkoaren %34,3; eta sozialistek 3.507 boto, guztizkoaren %10,9. PPK 938 boto jaso zituen, Sumarrek 861, Elkarrekin-Podemos 768, Voxek 268, eta beste alderdiek 235.

Deituta zeuden herritarretatik ia 33.000 lagunek erabili zuten boto eskubidea, alegia, hamar

lagunetik seik bozkatu zuten. Parte-hartzea 2020ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetako baino altuagoa izan zen, baina kontuan izatekoa da aurrekoetan pandemia betean egin zirela.

Hamasei goierritar zeuden zerrendetan. EH Bildutik, Josu Aztiria (6), Garikoitz Mujika (9), Erantz Saez de Egilaz (10) eta Laida Begiristain (16); EAJtik Markel Olano (2) eta Xabier Barandiaran (6); PSE-EEtik Alex Gonzalez (10), Oscar Valbuena (14), Eva Alvarez (23) eta Ana Sanchez (ord.); Podemosetik Ander Jimenez (3), Wesley Aritz Corsitto (18) eta Maria Jose Jimenez (ord.); eta Sumarretik, Monica Monteagudo (5), Alberto Bezunarte (10) eta Ines Maria Benitez (20).

Europako Parlamentua

Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde ondoan, Europako Parlamenturako hauteskundeak izan ziren ekainaren 10ean. Horietan



↑ Legebiltzarrerako hauteskundeetako boto-paperak. MAIDER INSAUSTI

→ Urretxuko Aizpuruena liburutegiko hauteslekua A21ean. M.I.



Emakume bat bozkatzeko Goierrin, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, apirilaren 21ean. M. INSAUSTI

ere EH Bilduk jaso zuen babesik handiena Goierrin. Eskualdeko 22 herrietatik hogeita batetan izan zen nagusi. Zumarragan, aldiz, PSOEek jaso zituen bozka gehienak. Guztira 10.616 boto lortu zituen EH Bilduk Goierrin Europako Parlamenturako. Jeltzaleek 6.518 jaso zituzten, PSOEek 5.438, PPK 1.186, Podemos 679, Sumarrek 647, Voxek 357, eta bes-

te koalizio edo alderdien artean 816. Parte-hartzea 2019koetan baino baxuagoa izan zen herri guztietan. Boto eskubidea zuten goierritarren erdia ez zen bozkatzera joan; 2019an, bi herenek baino gehiagok parte hartu zuten. Dena den, aurrekoetan udal eta foru hauteskundeekin batera egin ziren eta horrek parte-hartzean eragin zuen. ●

LEGEBILTZAR. BOZKATUENA

HERRIA	ALDERDIA	BOTOAK
Altzaga	EH Bildu	49
Arama	EH Bildu	22
Ataun	EH Bildu	620
Beasain	EAJ	2.303
Ezkio-Itsaso	EH Bildu	171
Gabiria	EH Bildu	172
Gaintza	EH Bildu	29
Idiazabal	EH Bildu	579
Itsasondo	EH Bildu	199
Lazkao	EH Bildu	1.354
Legazpi	EH Bildu	1.860
Legorreta	EH Bildu	342
Mutiloa	EH Bildu	92
Olaberria	EAJ	184
Ordizia	EH Bildu	1.877
Ormaiztegi	EH Bildu	300
Segura	EH Bildu	458
Urretxu	EH Bildu	1.353
Zaldibia	EH Bildu	592
Zegama	EH Bildu	463
Zumarraga	EH Bildu	1.538
Goierrri	EH Bildu	14.521





Antio
CONSTRUCCIONES ERAIKUNTZAK

Eraikuntzarako IRTENBIDEAK

www.antio.es

Urola, 8 Pab. 21-22
20230 - Legazpi

943734574
606342357
606241258

construccionesantio@antio.es

OBRAK ETA MANTENIMENDU INDUSTRIALA

ERAIKUNTZA ETA URBANIZAZIOAK

BIRGAITZE ETA ERREFORMAK

OBRA ZIBILA

OBRA BEREZIAK



Goierri bus

943 72 52 50 info@goierribus.eu www.goierribus.eu



Josu Aztiria, Garikoitz Mujika, Eraitz Saez De Egilaz (EH Bildu), Markel Olano eta Xabier Barandiaran (EAJ).

Bost goierritar Eusko Legebiltzarrean

● **EH Bilduko 27 legebiltzarkideetatik 3 goierritarrak dira, eta EAJren 27etatik bi.**

● **Eraitz Saez De Egilaz beasaindarra Legebiltzarreko Mahaiko idazkari ere bada.**

T.M/L.G/I.G.

GOIERRI— Hauteskundeen ondoren, Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko botoak zenbatuta, sei alderdi edo koalizioak lortu zuten ordezkariak Eusko Legebiltzarre-

ko 75 eserlekuak osatzeko. 27 izan ziren EH Bildurentzat, beste 27 EAJrentzat, 12 PSE-EErentzat, 7 PPrentzat, eta Sumarrentzat eta Voxentzat bana. 75 horietatik bost goierritarrak dira. Aurreko legealdian bakarra izan zen; Eraitz Saez De Egilazek soilik lortu du berriz eserlekua Gasteizen.

EH Bilduren 27 ordezkarietatik hiru dira goierritarrak: Josu Aztiria zumarragarra, Garikoitz Mujika idiazabaldarra eta Eraitz Saez De Egilaz beasaindarra. Eusko Legebiltzarrean dauden beste bi goierritarrak EAJkoak dira: Markel Olano beasaindarra eta Xabier Barandiaran ataundarra.

Mahaiko ordezkari
Aurreko legealdian goierritar bakarra izan zen Saez De Egilaz, eta

23 urterekin, parlamentari gazteen izan zen. Aurten ere bertan da. Horrez gain, hauteskundeen ondoren, maiatzean, Legebiltzarreko Mahaiko idazkari izendatu zuten beasaindarra bozketan.

Mahaia nola osatu bozkatu zuten 75 legebiltzarkideek: 39 emakume eta 36 gizon. Adinaren arabera osatutako behin-behineko mahaiak gidatu zuten prozesua, Susana Corcuera ganberako zaharrenak lehendakariaren rola hartuta.

Bakartxo Tejeria (EAJ) izendatu zuten Mahaiko presidente, Susana Corcuera (PSE-EE) mahaiko lehendakariorde, eta bigarren lehendakariorde Eba Blanco (EH Bildu). Joan Aiertza (EAJ) eta Eraitz Saez De Egilaz dira bi idazkariak. ●

Izendapenak Eusko Jaurlaritzan eta Aldundian ere

● **Karguak hartu dituzte 3 goierritarrek Jaurlaritzan, beste hiruk Aldundian.**

● **Kargu-aldaketak ere izan dira.**

GOIERRI— Hauteskundeak pasata, ekainean Gipuzkoako Foru Aldundi berria izendatu zuten, eta abuztuan Eusko Jaurlaritza berria. Kargu-hartze, kargu-uzte eta aldaketak tarteko, sei goierritarrek hartu zituzten karguak batean edo bestean: hiru goierritarrek Eusko Jaurlaritzako karguak hartu zituzten, eta beste hiruk Aldundikoak.

Felix Urkola lazkaotarrak (EAJ) Bide Azpiegituretako eta Lurralde Estrategiako diputatu izendatu zuten. Ekainaren 27an hartu zuten kargua, Eider Mendoza diputatu nagusiaren eskutik. Maria Ubarretxena (EAJ) urretxuarraren lekukoa hartuta. Ubarretxena, berriz, Eusko Jaurlaritzako bozemaile eta Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburu izendatu zuten ekainaren 22an, Imanol Pradalesek lehendakari izan zuten berritan. Uztailaren hasieran izan zen hurrengo izendapena:

Ion Muñoa zeraindarra Eusko Jaurlaritzako Gizarte Trantsizioarako eta 2030 Agendarako idazkari nagusi izendatu zuten Pradalesen gobernuak, Jonan Fernandezek lekukoa hartuta. Ordura arte, Gipuzkoako Foru Aldundiko Estrategia kabinete-burua zen Muñoa.

Itziar Agirre urretxuarrak (EAJ), aldiz, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza sailburordea izateari utzi zion, eta Aldundiko Ogasun eta Finantza diputatu kargua hartu zuten abuztuan.

Aitor Aldasoro beasaindarrena izan zen hurrena, abuztuaren amaieran: Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako sailburorde da. Beasaingo Udaletik Legebiltzarrera egin zuten, eta handik Jaurlaritzara: Ingurumen eta Jasangarritasun Saileko aholkulari izan zen aurrena, eta 2023ko uztailetik 2024ko ekainera, sailburorde. Azken udal hauteskundeetan zinegotzi hautatu zuten beasaindarrek.

Azkenik, Aitziber Beldarrain legazpiarra Aldundiko Finantza eta Aurrekontuetako zuzendari nagusi izendatu zuten irailean, Itziar Agirre buru duen Ogasun eta Finantza Departamentuko lantaldean. Jaurlaritzako Erakunde Baliabideetako zuzendari izan zen 2017tik. ●LG

EGUZKI ENERGIA PLAKAK

Diseinatu
Instalatu
Mantendu

TAPIA
energia



40
1983-2023
urte zugandik gertu

943 889 594

www.tapiaenergia.com

**Lazkaon militarrez
mozorrotutakoari
isuna jarri zioten**

LAZKAO— 2022ko urriaren 12an Espainiaren eguna deitoratzeko Lazkaoko plazan izandako kontzentrazioan herritarrek egindako parodia baten harira, horietako bat identifikatu eta 1.402 euroko isuna jarri zion Ertzaintzak; guardia zibilez mozorrotuta egon zen parodian, eta «guardia zibilaren erreplika izatea» leporatu zioten.

**Herri txikiek diru
gehiago izango dute
foru funtsa egokituta**

GOIERRI— Herri txikiek dakartzaten zailtasunei aurre egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2025eko UFFF Udalen Finantzaketarako Foru Funtsean 1.100 biztanle baino gutxiago dauzkaten udalerrii diru gehiago emateko foru araua aldatu zuen, eta Goierriko bederatzi udalerri iragin zien banaketa-sistema berriak.

**Mila Sukiak kargua
utzi du, bederatzi
urtez zinegotzi izanda**

ORDIZIA— 2024ko maiatzaren 30ean Ordiziako udal osoko bilkuran errenuntzia aurkeztuta, Mila Sukiak, Ordizia Orain koalizioa ordezkatzuz hautetsi modura bederatzi urte egin ostean, zinegotzi kargua utzi zuen; aurretik esana zuen ez zituela bi agintaldi baino gehiago egingo. Julen Iraolak hartu zuen haren lekukoa.

**Goierri-Donostia
autobus zerbitzua,
udaberrirako**

GOIERRI— Gipuzkoako aurrekontuak onartuta, martxotik aurrera Goierri Donostiarekin konexioa izango du Lurraldebusen bidez. Zumarragatik abiatuko da eta Beasainen, Ordizian eta Tolosan egingo ditu geldialdiak Donostiara iritsi aurretik. Astegunetan orduero egongo da zerbitzua, eta asteburuetan bi orduz behin.

**Segurak eta Urruñak
senidetze gutuna
sinatu dute**

SEGURA— Segurak eta Urruñak senidetze gutuna sinatu zuten urriaren 13an. Bi herrien arteko elkarkidetzak hiru hamarkada dituen arren –Iparra-Hegoa da horren adierazle nagusia–, sinatuz formalizatu zuten senidetzea Urruñan egindako ekitaldi batean Izarra Urdalleta eta Phillippe Aramendi alkateek.

**Motibazio
politikoko
biktima
izendatu dituzte
sei legorretar**

LEGORRETA— Motibazio politikoko indarkeriaren biktima izendatu zituzten iazko apirilean sei legorretar: Pepita Altuna, Karmele Gaztañaga, Mari Karmen Altuna, Axun Goikoe-txea, Mari Karmen Plazaola eta Joxe Lasa. Lasak kalte-ordain ekonomikoa ere jaso zuen.

1975ean atxilotu zituzten seiak, eta torturatu egin zituzten. Lasa espetxean egon zen Legorretako paper lantegiko grebaren harira.

2023ko urrian testigantza eman zuten Eusko Jaurlaritzaren balorazio batzordearen aurrean, eta apirilean iritsi zitzaizen ebazpena: aho batez proposatu zuen batzordeak seiak motibazio politikoko biktima izendatzea, eta hala egin zuen Eusko Jaurlaritzak.

Gutuna igorri zien Jose Antonio Rodriguez Giza Eskubideetako sailburuordeak, «oso berandu» iritsi arren, hau esanez: «Espero dut jasandako bidegabekeria eta sufrimendu handiaren ordaina izatea, neurri batean behintzat». ●GH

**Arantzazu Gereñu da Zeraingo
alkate berria, Urteagak kargua utzita**

● Zeraingo EH Bilduk 10 eguneko epean aukeratu zuen Urteagaren ordezkoa.

● Arrazoi pertsonalak tarteko egin dio uko karguari.

I.V./J.Z

ZERAIN— Azken aldaketak medio, aro berri bat ireki da Zeraingo Udalean. 2024ko azaroaren 29an jakinarazi zuen Gorka Urteagak, goizeko 08:00etan egindako ez ohiko osoko bilkuran, Zeraingo alkate kargua utziko zuela, arrazoi pertsonalak tarteko. Arantzazu Gereñu da alkate berria abenduaren 16az geroztik.

Urteagaren aurreneko aldia zen politikagintzan. Aurretik herrigintzan maiz aritua zen arren, 2023ko ekainean hartu zuen alkate kargua, EH Bilduk maiatzeko hauteskundeak aldeko 112 bozkarerekin irabazi eta Zerain Burujabe herri plataformari aurrea hartu



Zeraingo Udalaren eraketa 2023ko ekainean. ZERAINGO UDALA

ondoren. Hala, EH Bilduren lau zinegotzirekin eta Zerain Burujaberen hiru zinegotzirekin osatuta geratu zen Zeraingo Udaltzate urte bereko ekainean egin zen udalaren eraketan.

Hamar egunetan

Zeraingo EH Bilduk kasuari aterabide bat emateko, 10 eguneko epean aukeratu behar izan zuen

Urteagaren ordezkoa, alegia, hurrengo osoko bilkuran bozkatu zedin alkate berriaren onarpena. Arantzazu Gereñu Barriola izendatu zuten alkate berri gisa, Zeraingo udaltzate abenduaren 16 arratsaldean egindako ez ohiko osoko bilkuran; gehiengoaren babesia jaso zuen Gereñuk, aldeko lau boto izan zituen (EH Bildu) eta bi abstentzio (Zerain Burujabe).

Oposizioko alderdiaren hirugarren zinegotziak ez zuen bilkuran parte hartu. Urteagaren dimisioaren ondorioz, udaltzatearen osaketan zinegotzi kargu bat ere hutsik geratu zen. Fermin Mendia Zunzunegik hartu du kargua EH Bilduren izenean.

Lanari jarraipena

Kargura iritsi zenean Urteagak garbi zuen zein izango zen helburu nagusia: herriko bizikidetzaren suspertzea. Haren ustetan, Zerain bezalako herri txiki batean, herritar orori dagokio bizikidetzaren bueltan norbere hazitxoak jartzea. Karguari uzterako arrazoi gisa arrazoi pertsonalak argudiatu zituen, eta adierazi zuen orain artean familiari kendutako denbora itzultzea izango duela aurrerantzean helburua.

Gereñuk azpimarratu du udal gobernuaren lan ildoak legegintzaldiaren hasierako berberak direla, eta Urteagak hasitakoari jarraipena ematea izango dela helburua. Epe motzera begira, Zeraingo Udalaren erronka nagusienetako bat da 2025eko aurrekontuak osatu eta onartzea. ●

AGIRRE ERAIKUNTZAK

AGIRRE

GARABI, POLIPASTO ETA MONORAILAK
INSTALAZIOA
KONPONKETA
MANTENIMENDUA
BERRITZEA

Senpere, 12 Lazkao Tel.: 943 88 15 57
www.agirre-eraikuntzak.eus

UOMA
UDALBIZTZA

Alamartxoaren sua
eta
Euskararen garra
dira
gure amasak.

ZALDIBIAKO
UDALA

zaldibia.eus

Egia juridikoaren bila

● Josu Mujikaren senideek kereila bat jarri dute haren hilketan parte hartu zuten polizien aurka.

K.G./I.V

LEGAZPI— Josu Mujika Aiestaran legazpiarren senitartekoek kereila kriminala jarri zuten gaztearen hilketan parte hartu zuten polizien aurka, uztailean jakinarazi zuten. Tartean da, besteak beste, Mikel Lejarza *El lobo* goitizenez ezaguna den polizia infiltratua. Euskal Herriko Giza Eskubi-

deen Behatokiaren laguntzarekin jarri zuten kereila. Mujika Aiestaran giza eskubideen urraketan biktima izan zela aitortu zuen Eusko Jaurlaritzak iaz. Jaurlaritzak txostenean nabarmendu zuen bertsio ofizial kontrajarriek ez zutela argitu Madril duela 49 urte eraildako gaztearen heriotza.

Zigor penalik ez zuten eskatu senitartekoek, baina benetan gertatutakoa jakin nahi dute; alegia, egia juridikoa, eta zinez uste dute hori lortzeko bidea dela kereila ezartzearena. Justiziak erabakitzen duenaren zain, Espainiako epaitegiek eskaera onartzen ez badute nazioarteko auzitegiatarantz jatzeko prest dira. ●



Mariaje Lezeta, bikotekidea. K.G.

Ernaiko hiru gazte goierritarri isuna jarri diete

GOIERRI— Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak 300.000 euroko isunak jarri zituen Ernaik deitutako protesta batean parte hartu zuten 133 pertsonari, mozal legea aplikatuta. 1.500 eta 2.500 euro arteko isunak iritsi zitzaizkien; tartean hiru gazte goierritar daude, bakoitzak 1.500 euroko isuna jasota. Isun bakoitzeko he-

legite bat aurkeztu zuen Ernaik Gasteizko administrazioarekiko auzietako epaitegian, eta helegite horiek aztertze lehen epaiketara azaroaren 28an izan zen. Prozesu horrekin, Euskal Herriko gazte-riaren eskubide zibil eta politikoaren defentsarako bermeak ezarri nahi dituzte.

Galder Barbado eta Aitor Zelaia gazteen kontrako espetxeratze agindua salatze, Gazte Antolakundeak bi protesta egin zituen iazko irailaren 22an: bat Bilbon eta bestea Gasteizen. Protesta

horietan, ertzainek, 133 gazte identifikatu zituzten eta hilabete batzuen ondoren iritsi zitzaizkien isunak. Gazte mugimendua «ekonomiko ito nahi izatea» egotzi zion Ernaik Segurtasun Sailari, isunak «modu arbitrario eta desproporzionatua» ezarrita. Maiatzaren 30ean agerraldi baten bidez isunen berri eman zutenetik, hainbat ekitaldi eta mobilizazio egin dituzte, irailaren 8an Donostian egindako manifestazioa barne. Erantzun gisa, independentzia aldarrikatu zuten. ●IV

Esnaola eta Jauregi goierritarak baldintzapean aske geratu dira

● Jauregik 23 urteko espetxealdia egin du, eta Esnaolak 13 urtekoa.

GOIERRI— Oskarbi Jauregi Amundarain preso zaldibiarra eta Aitor Esnaola Dorronsoro preso legorretarra baldintzapeko askatasunean geratu ziren, hirugarren graduan egon ondoren; bata, abuztuaren, eta bestea, urriaren. Zaldibiarrek martxotik zeraman baliabide telematikoen bidez zigorra betetzen, eta legorretarrak, berriz, uztailetik. 2001ean atxilotu eta kartzelaratu zuten Jauregi, eta Almeria, Granada, Picassent eta Madrilgo kartzelatan eduki zuten gatibu.

2020ko azaroan, ordea, Teixeiroko espetxetik (Galiza) Euskal Herriratu eta Martutenen egon zen.

Esnaola, berriz, Ocaña I kartzelatik Soriara lekualdatu zuten 2020ko urrian, zigorraren erdia bete zuela. 2021eko apirilean Euskal Herriratu zutenean Martutenen espetxeratu zuten, eta 2022ko maiatzean hirugarren gradua eman ziotela, fiskaltzak helegitea aurkeztu eta bigarren gradura itzuli zuten, berriz ere espetxeratu. ●IV



Zaldibiarrek Castelloko espetxean, Jauregiri bisitan. HITZA

Legazpin, bizi euskaraz

Euskara zerbitzua
Tel: 943 73 70 30
Fax: 943 73 72 00
euskara@legazpi.eus

www.legazpi.eus

LEGAZPIKO UDALA

LANDU
PRECISION MACHINING

Pol. Basozabal 3 · Olaberria
+34 943 882 152

www.landu.es

AMPO

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON





Patxi Ezkiaga idazle legorretarra. IÑIGO IBAÑEZ

Ezkiagak egindako sexu abusuak salatu dituzte

● Eraso sistematikoak izaten zirela salatu dute, ahal eta nahi zuen unean egindakoak.

● Erasoak salatzerakoan Ezkiaga ezaguna izateak oztopoak ekarri dizkie emakumeei.

M. I / I. V / G. H

LEGORRETA— Patxi Ezkiaga idazle legorretarra (1943-2018) sexu abusuak egin zizkiola salatu zuen maiatzean lehendabizikoz Marisol Zamora izeneko emakume batek *El País* egunkarian. 1970eko hamarkadan jasan zituen aurreneko erasoak, eta egia jakin zedin eman zuen lekukotasuna.

Geroztik, beste hiru emakumek ere salatu zituzten Donostiako La Salle ikastetxean elizgizonak egindako erasoak.

Zamorak zortzi edo bederatzita urte zituela jasan zituen erasoak, eta hamahiru urtera arte sufritu zituen. Nahiz eta bere ikaslea ez izan, gurasoen laguna zenez, etxeko intimitatean egiten zizkion erasoak. Orotara, gutxienez, ha-

mar aldiz eraso ziola salatu zuen Zamorak.

Beste hiru emakumek ere salatu zuten erasoak sistematikoak izaten zirela, eta behin eta berriz ematen zirela ikasgelan, bulegoan, Isabako kanpalekuan... ahal eta nahi zuen unean. 1991n, 1995ean, eta 1996an jasan zituzten eraso hauek eta salatu zuten, urte haietan Ezkiagak egin zizkien abusuen berri zenbait irakasleri eman bazieten ere, ikastetxeak ez zuen haren aurkako neurririk hartu.

Ezaguna izatea oztopo

Zamorak adierazi zuenez, Ezkiaga ezaguna izatea oztopoa izan zen erasoak salatzerako garaian; batez ere, poesian egindako ibilbideagatik zen ezaguna Ezkiaga. Narrazioa eta eleberria landu zituen, baina olerkigintzan nabarmendu zen.

Hilabetean, 24 lekukotza

Ezkiaga urte luzez aritu zen Donostiako Loiola auzoko ikastetxean, euskara irakasle. Zamorak aurreneko jasadako erasoak salatu zituenetik, hilabete eskasean, *El País* egunkariak 24 ikasle ohiren lekukotzak bildu zituen.

Legorretako Udalak herriko seme kuttun izaera baliogabetu zuen, kultur etxeari haren izena kendu zion eta Etxezarreta parkeko eskultura kendu zuen salaketan berri izatean. ●

Azkenean lortu dute ataundarrek mediku batek plaza hartzea

ATAUN— Urtarrietik martxora bitarte lehen arretako mediku zerbitzurik gabe egon ziren ataundarrak, bi sendagileren hutsunearekin. Izan ere, lehen zeuden bi medikurik gabe geratu ziren, lekualdaketen eta baja-ordezkapen ezaren ondorioz. Bitarte horretan, Osakidetza astean bi egunetan Olaberitik eta Lazkaotik medikua bidaltzen jardun zuen.

Ataundarrak, gabeziarekin eta egoerarekin goiti eginda, 626 erreklamazio bildu zituzten herritarren artean, sortutako gabeziarekin desadostasuna adierazteko eta arazoari konponbidea emateko, kalitatezkoa eta publikoa izango zen mediku zerbitzu duina bermatzea eskatuz. Otsaila erdialdean eraman zituen Medikua Ataunen plataforma herritarrek bildutako erreklamazioak Eusko Legebiltzarreko erregistrora. Astebete igarota, Ataungo Udalak jakinarazi zuen mediku batek San Martin auzoko plaza hartuko zuela, martxoaren 11n lanean hasita. ●IV

Pandemiak utzitako bizipenak jaso dituzte Ordizian

ORDIZIA— Ordiziako Udalak 2022ko martxoko Udalbatzaren Osoko Bilkuran konpromisoa hartu zuen COVID-19ak ekarri zuen pandemiak herrian utzi zituen bizipen ezberdinak aztertu, jaso, analizatu eta argitaratzeko. Horren erantzun gisa aurkeztu zu-

ten *Pandemian bizi* dokumentua, non ordiziarrek euren bizipenak partekatu zituzten Farapiko ki-deen laguntzarekin, pandemian bizitako egoeren herri narratiba osatzeko. Testigantzen jasotze batetik harago, hausnarketara jo nahi izan zuten egileek. Orotara, 62 herritarrek eta eragilek hartu zuten parte prozesuan. Uztailan aurkeztu zuten liburua herritarren aurrean, liburuan haien testigantzak eman zituztenei ale bana oparituta. ●IV

Elkargunea sortu dute Legazpin

LEGAZPI— Bizikidetzarako Herritarren Foroaren proposamenez sortua, urrian aurkeztu zuten legazpiarrek Elkargunea, Mirandaolan. Elkarrizketarako eta elkar ulermenerako espazioa da.



Ibaiondo
ARROZTEGIA
ALTZARIAK

Katea kalea, 5 Beasain www.mueblesibaiondo.com 943 16 40 40 639 631 640

Goierrialdea
autobusak

Mota guztietako bidaiak

Tel.: 943885969
info@goierrialdea.eus
Gudugarreta auzoa
BEASAIN

www.goierrialdea.eus

Euskal Eskola Publikoaren Jaia Ordizian

● Antolatzaileen arabera, ia 10.000 lagun elkartu ziren Urdaneta-Oianguren ikastetxeek antolaturiko festan.

L.G / I.V

ORDIZIA— Kalitatezko hezkuntza sistema publikoa, euskalduna eta inklusiboa aldarrikatzeko, *Publikoa ai do!* lelopean Euskal Eskola Publikoaren 31. Jaia ospatu zuten ekainaren 2an Ordizian, eta bertako Euskal Eskola Publikoko komunitateak ez ezik, inguruko zein urrutiagoko herrietako eskola publikoko kideek ere bat egin zuten; antolatzaileek egindako balorazioaren arabera, ia 10.000 lagun elkartu ziren Urdaneta-Oianguren ikastetxeek antolatutako festan.

Benetako festa egun bilakatu zuten ekainaren 2a. Barrena parkean ospatu zen hasiera-ekitaldi ofiziala, Ametsbide eta Urdaneta dantza taldeen agurrarekin batera. Ondoren, Arkaitz Aburto EHIGEko presidentea eta Maria



Albisu Ordiziako Urdaneta eskola publikoko IGEko presidentea hitza hartu zuten, baita Adur Ezenarro Ordiziako alkatea ere.

Hasiera ekitaldiaren ondoren ekintza ezberdinak burutu zituzten lau gunetan banatuta: plaza nagusiko gunean, magoen saioa, batukada feminista, Pirritx Porrotx eta Marimotots, puzgarriak eta perkusio tailerra izan ziren; Barrena parkeko gunean, berriz, antzerkiak, eskulanak, Oihan Vega DJ-a eta jolasak; pilotaleku inguruko gunean, elikadura

Hasiera ekitaldiko argazkia, Barrena parkean. LAIDA GOIBURU

eskola, jolasak, photocall-a eta bazkari gunea; eta Barandiaran plazan, azkenik, kirolak: gimnasia erritmikoa, saskibaloia, eskubaloia, errugbia, futbola eta txirrindularitza. Talde zein eragile herrikoientzat ere izan zen topaleku: Burrunbazale txarangak, Ordiziako erraldoiek eta musika eskolako bandak eta Ordiziako txistulariek kaleak girotu zituzten.

Askotariko gonbidatuak
Gonbidatuen artean egon ziren Begoña Pedrosa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuordea, Eugenio Jimenez Ikastetxe eta plangintza zuzendaria, Amaia Urzelai Gipuzkoako hezkuntza lurralde ordezkaria eta Maite Alonso Euskadiko Eskola Kontseiluko presidentea. Horiez gain, bestelako alderdi politiko, sindikatu eta talde eragiletako kideak ere bertan izan ziren. ●

Rosarito Lasa hil da, Jakintzako sorreran lehen andereñoa

ORDIZIA— 2024ko azaroaren 29an hil zen Rosario Lasa Irastorza ordiziarrak, 76 urterekin, gaixotasun batek aspalditik erasanda. Ordiziako Jakintza ikastola abiarazi zuten aurreneko bi irakasleetako bat izan zen Lasa,

hain zuzen ere, ikastolaren sorreratik erretiroa hartu arte izan zen andereño. 1968ko urtarrilaren 8an ireki zuten ikastola, 50 bat ikaslerekin hasita. Lasarekin batera, Mari Karmen Oiarbide hasi zen irakasle.

Metodologia berritzaileak
Donostian, Andereñoen Erresistentzian 1967an jaso zuten prestakuntza, garaiko metodo pedagogiko berrietan trebatzeko, eta horiek erabili zituzten aurrera

begira. Elbira Zipitriarekin ibilitakoek erakutsi zieten.

Guraso talde batek bultzatuta eta Ordiziako euskaltzaleek babestuta, 1965etik ari ziren ikastola sortzeko lanean, baina bigarren saiakeran lortu zuten irekitzea, 1968an. Geroztik, metodologia ezberdinen bitartez, euskarazko irakaskuntza berritzailea ematen jardun zuen, erretiroa hartu arte. Gau Eskolan helduentzat euskara klaseak ere ematen zituzten Lasak eta Oiarbidek. ●AM



Beasaingo taldea 'Gurea erabil dezakezu' aurkezten. HITZA

Altxa Burua sortu da Goierrin


● Gurasoak teknologia berriek eta pantailek gazteengan duten eraginaz hausnartzea eta kontzientziatzea nahi dute.

● Goierriko hamabi herritan sortu dituzte taldeak.

GOIERRI— Haur eta nerabeen artean lehen mugikorra izateko adinak eta pantailen gehiegizko erabilpenak kezkatuta, hausnarketarako taldeak sortu dituzte Goierriko hamabi herritan, Altxa Burua izenarekin. Problematika honekin arduraturik zeuden bizpahiru guraso elkartu ziren, eta Gipuzkoa mailan sortutako egitasmoari tiraka, beste eskualde zein herri batzuetan egiten ziren ekimenak Goierrira ekartzeko asmoz elkartzen hasi ziren, esan bezala, pantailak, oro har, eta, mugikorrak, zehazki, haur eta nerabeengan duten eragin kaltegarria kontuan har-

tuta. Hasierako sorreratik, asmo nagusi bera izan dute: gurasoak teknologia berriek gazteengan duten eraginaz hausnartzea eta kontzientziatzea, eta horren ondorioz, seme-alabei lehen mugikorraren eraketa atzeratzea. Izan ere, azken urteetan egin diren ikerketak oinarritzat harturik, bereziki arduraturik zeuden ondorioekin. Kontzientziario prozesu horretan, hala, ekintza eta egitasmo ezberdinak burutu dituzte urte osoan zehar: sentsibilizazio kanpainak, hitzaldiak elkarte zein ikastetxeetan, mugikorraren erabilera arautzeko gidak, gurasoengana zuzendutako tailerrak, merkatariekin harremanak... besteak beste.

Gero eta herri gehiagotan
Goierrin behean, Ataunen, Beasainen, Idiazabalen, Itsasondon, Lazkao, Legorretan, Ordizian, Seguran, Zaldibian eta Zegaman antolatu dituzte taldeak. Eta Goierri garaian, aldiz, Zumarraga-Urretxun eta Legazpin, nahiz eta azken honetan, diagnostiko bat egiteko prozesuan dauden oraindik. ●IV



ezarri

Ametsak
mosaikoz
eginda daude

Zubierreka Industrialdea 58
20210 Lazkao - Gipuzkoa
ezarri.com



Beasaingo mobilizazio nagusia, Goierriko Koordinadora Feministak deituta. LOINAZ AGIRRE

Zaintzaren eskubidea aldarri martxoaren 8an

● Zaintzarako eskubide kolektiboa aldarrikatu zuten, zaintza erdigunean jarriz.

● 'Denon bizitzak erdigunean' lelopean egin zituzten mobilizazioak.

I.G./A.V./L.A./I.V

GOIERRI— Jendetza bildu zuen Goierriko eskualdeak martxoak 8 emakumeen nazioarteko egunaren harira. Goierriko Koordinadora Feministak mobilizazio nagusia Beasainen egin zuen, ordiziar eta lazkaotarrekin batera. Azken bi hauetatik, mobilizazio bloke bana iritsi zen Erauskin plazara. Horrez

gain, baina, bestelako herrietan ere burutu ziren elkarretartzeak, hala nola Ataun, Legorreta, Ormaiztegi, Legazpi, Idiazabal, Mutiloa, Itsasondo, Segura, Zaldibia, Zegama eta Ezkio-Itsason, *Zaintzarako eskubide kolektibo baten alde*. *Denon bizitzak erdigunean* lelopean. Urretxun eta Zumarragan egindako mobilizazioan ere jende andana bildu zen.

Bertako talde feministek deitu zituzten mobilizazioak.

Greba Orokor Feminista

Zaintzaren beharra aldarrikatu zuten denetan, alegia, pandemiak adinekoen egoitza batzuetako egoera jasangaitza argitara atera zuela gogoratzeaz gain, etxeetan lan egiten duten langileen esplotazioa ere salatu zuten. Era berean, zaintzarako eskubide kolektiboa aldarrikatu zuten, hain zuzen, «persona guztiok gure bizitza osoan zehar zaintzak askatasun, duintasun eta konpromiso-baldintzetan eman eta jasotzeko eskubidearen alde, mendekotasun egoerez harago», adierazi zuten Beasaingo amaierako ekitaldian. Amaitzeko, antolatzaileek 2023ko martxoaren 8an urte hartan azarorako deitutako Greba Orokor Feministari aipamena egin zioten.

Egun oparoa Ormaiztegin

Mobilizazio eguna baino astebebe lehenago ekin zioten egitarauari Ormaiztegin, Pantxika Lamurren *Alter Ego* ikuskizunarekin; Maite R. Otxotorena idazleak *Un desierto de hielo* eleberriaren inguruan egindako aurkezpenarekin jarraitu zuten; eta, egunean bertan borobildu zuten egitaraua, Ttipi-Ttapa more ibiltaria eta musikak egin zuten lehendabizi eta *Elkar ezagutzuz* herriko emakumeen topaketa eta txokolate jana egin zuten ostera. ●

Miren Etxezarretaren funtsa, herritarren eskura

ORDIZIA— Miren Etxezarreta ekonomialari ordiziarrek bere ibilbide oparoan ekonomia kritikoa inguruan sortu duen funtsa Ordiziako Udalariei eman zion 10 urterako dohaintzan, 2022an. 2024an, berriz, horren emaitza herritarren eskura jarri zuten, eta Barrena jauregian aurkeztu zuten *Mirenetxezarreta.eus* plataforma, azaroan. Etxezarretaren lanak sailkatu, digitalizatu eta webgune horretan jarri zituzten ikusgai. Dokumentu originalak udal artxibategian gordeta daude.

Adur Ezenarro alkateak eskerrak eman zizkion Etxezarretari, haren lan eskerga «gorde, zaindu eta zabaltzeko Ordizia jaioterria aukeratzeagatik». Etxezarreta, aldiz, «oso hunkituta» agertu zen ekitaldian ekimenarekin eta «esku-zabaltasunarekin».

Aurrera begira, beka formatu bat sustatzea dute helburu, horretatik ikerketa bultzatzeko. Ikerketa akademikotik harago, kasu praktikoen azterketa izatea nahi luke Etxezarretak berak. ●LG

Maite Errarte da etnografia saileko zuzendari berria

BEASAIN— Maite Errarte historia-lariak hartu zuen Fermin Leizaola Aranzadiko etnografia saileko zuzendaritzan utzitako erreleboa. 2019an sartu zen sailera, eta Suherri Matelorekin, ondare kultural materiala katalogatzeko proiektuak, museografiakoak eta dibulgaziokoak zuzendu ditu.

Goierriko Gazte Feministak, izen eta izaera berriarekin

GOIERRI— Goierriko Gazte Feministak konfinamendu aurretik sortutako taldea izan zen -Goierriko Neska* Gazteak izenpean-, baina bi urteko hausnarketaren eta belaunaldi aldaketa baten ondoren, joan den ikasturtean hasi ziren berriz ere antolatzen, grebaren testuinguruan.

Palestinako sarraskia salatzen mobilizazioak

GOIERRI— Milaka euskal herritarrek mendebaldeko gobernuak eta enprek sionismoarekin duten konplizitatea seinalatu zuten urtarrilaren 27an, Palestinarekin Elkartasuna ekimenak Ordiziatik Beasainera antolatutako manifestazioan. Propio izan zen Goierriin, CAFen erantzukizuna salatzen.

Etxebizitzaren negozioa salatu dute zenbait eragilek

GOIERRI— Abenduaren 14an etxebizitzaren negozioaren aurkako manifestazioa egin zuten milaka lagunak Bilbon, Euskal Herriko etxebizitza sindikatuak deituta. Legazpiko, Beasaingo eta Zaldibiako gazte asanbladak eta Goierriko Etxebizitza Sindikatu Sozialistak ere bat egin zuten.

Bost milioi euro utzi ditu Eguberrietako loteriak Beasainen

BEASAIN—Eguberrietako loteriak 5.034.000 milioi euro banatu zituen Beasainen, bosgarren sariarekin. 74.778 zen zenbaki sari-tua, eta Jose Migel Iturrioz kaleko Alfredo Martinez de Arenazaren bigarren Loteria Administrazioan saldu ziren 845 dezimo. Dezimo bakoitzagatik 6.000 euro.

Urretxu - 943 72 42 99

www.elur-aiptu.com

Filipinar uharteak, 5 ZUMARRAGA
Tel.: 943 72 49 26

nekoz.com



Ibaiondo kalean oinezkoentzako berreskuperatutako espazio berdea. ZUMARRAGAKO UDALA

Zumarraga aurrera doa tokiko merkataritza eta jasangarritasuna bultzatzeko ekimen berriekin

Urte garrantzitsua izan da 2024a Zumarragarentzat, hiri-ekonomiaren eredu bat finkatzeko egin duen apustuan. “Zumarraga, merkataritza eredu digital eta jasangarria sendotuz” proiektuaren babespean, eta Next Generation funts europarren 2 milioi euroren babesarekin, Udalak aurrerapauso handia eman du udalerrira erreferente gisa kokatzen duen garapen ekonomikorantz, 2.600.000€-ko inbertsioarekin.

Azpiegituretako eta jasangarritasuneko inbertsioak

Nabarmentzeko jardueren artean, hirigintzako bi mugari handi daude: Legazpi kalearen erdi-oinetzotzea eta Ibaiondo kaleko ibai pasealekuaren bigarren fasea. Esku-hartze horiek 1,85 milioi euroko inbertsioa ekarri dute, eta hiri-ingurunea espazio irisgarriagoa, erosoagoa eta erakargarriagoa bihurtu dute auzotarrentzat, bisitariarentzat eta saltokientzat.

Gainera, 200 argi inguru berritzen ari dira LED teknologiarekin, eta ia argiztapen publikoaren % 100 kontsumo txikikoa izatea lortzen ari dira. Jasangarritasunarekiko konpro-

miso hori merkataritza arloan lurpeko edukiontzien postontziak modernizatzearekin osatzen da, hondakinen kudeaketaren eraginkortasuna hobetuz.

Tokiko merkataritzari digitalizazioan babesa

Azoka Experience eta AzokaEkin bezalako ekimenekin, Udalak merkataritza-sarea indartu du prestakuntza eta aholkularitza pertsonalizatuaren bidez, merkataria eta saltzaileak merkatu digitalera egokitzeko gaituz. Aurten, Azoka Experiencek bere bigarren edizioa ospatu du 12 establezimendu eta azokako posturen parte-hartzearekin, tokiko lehiakortasunerako funtsezko tresna gisa sendotuz.

Era berean, “Herrian erosi, etxean jaso” etxeko banaketa-zerbitzuak eta Klik eta Jaso armairu automatiko hoztuek erosketen logistika modernizatu dute, kontsumitzailearen esperientzia hobetuz eta tokiko erosketak sustatuz, horrela gure azokako produktu-ekintza urteko 365 egunetan izatea lortuz.

Azoka eta turismo-marka dinamizatzea

Zumarragako Azoka enblematikoak ekimen turistiko eta kulturalen epizentroa izaten jarraitu du. Aurten, Baserritarren Nabearren 70. urteurrenaren os-

pakizunak omenaldia egin zien bertako baserritar eta ekoizleei, zero kilometroko produktuen garrantzia azpimarratuz.

AzokaEkinekin, bertako ekoizleen eta baserritarren eskutik lan eginez, formula berri-tzaileak bilatzen ari gara gure azokan bertako produktuen eta km0 produktuen presentzia sustatzeko.

Gainera, Zumarraga Bide Bizia marka turistikoaren dinamizazioan aktiboki lan egin da, hura ezagutzera emateko eta haren balioa indartzeko ekintza desberdinekin. Ekimen horiek Azokatik abiatzen diren ibilbideen sustapena barne hartu dute, eta, horri esker, herritarrek eta bisitariak herriko ondare natural eta kultural aberatsa ezagutzeko aukera izan dute. Ahalegin horrek merkataritzaren, turismoaren eta jasangarritasunaren arteko lotura indartzen du.

Berrikuntza Teknologikoa eta Leialtzea

Zumarraga Berrikusi aplikazioaren bidez, ZB Klubak herritarren leialtasuna sustatu du, tokiko erosketak sustatuz eta udalerriko merkataritza indartuz..

Etorbizunerako Plan Estrategikoa

Azken urteotan garatzen ari ginen logika aurrera egiteko



Legazpi kalea - erabateko berrikuntza. ZUMARRAGAKO UDALA

asmoz, eta dagoeneko itxita dauden merkataritza eta azoka plan ezberdinekin, Udala Hiri Ekonomia Jasangarriko Plan Estrategiko bat sortzeko lanean ari da, merkataritza politikak ikuspegi integral batetik definituko dituen 2030era arte. Plan horren helburua da Zumarraga tokiko ekonomiaren agertoki nagusi bihurtzea, merkataritza-politikak hiri-agenda jasangarri berri baten balioekin bat datozen gunea.

Etorbizunerako begira

2016az geroztik, 8,8 milioi euro inbertitu dira herritarren gozameneko udalerraren erdiguneko hiri-espazioak berreskuratuzeko, tokiko merkataritzaren sektorearen nahiz Azokaren profesionalizazioa eta digitalizazioa sustatzeko proiektuetan. Konpromiso horrek indarrean



INBERTSIOAK

2021etik, Zumarragak 4,3 milioi euro inbertitu ditu asmo handiko proiektu honetan, eta horietatik 3 milioi Next Generation funtsetatik datoz. Ahalegin hori bi fasetan gauzatu da:

2021

“Zumarraga, merkataritza eredu digital eta jasangarri baterantz aurrera eginez” proiektua (1,8 milioi euro).

2024

“Zumarraga, merkataritza eredu digital eta jasangarria sendotuz” proiektua (2,5 milioi euro).

jarraitzen du, Zumarragarrekin batera lan eginez ekimen eta estrategia berriak diseinatzeko, Zumarraga guztiontzako aukeraz betetako udalerrira dinamiko, jasangarri eta iraunkor bihurtzeko. ●



Euskara eta elkarbizitza

● Guraso bileren forma zaharkitua berrikusi dute Lardizabalen, euskara erdigunean jarrita.

● Hizkuntza irizpideengatik eta parte hartzea sustatzeko egin dute aldaketa.

H.H./I.V

ZALDIBIA— Zaldibia herri euskalduna da, euskararen arnagune bat, UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko herria; baina, azken urteetan izandako immigrazio handiaren ondorioz, aldatzen ari da egoera soziolinguistikoa. Ez euskara eta ez gaztelania ez dakiten familiak etorri dira Zaldibiara. Egoera horrek herrian errota ahal izateko zenbait zailtasun ekarri dizkie familia askori. Zaldibiako eskolan, adibidez, hala zuzendaritza nola Ausa Gaztelu

guraso elkarrekin, familia berriak euskara ez jakiteagatik hezkuntza komunitateko bizitzatik kanpo geratzen hasiak zirela ohartu zen.

Hala, 2020an, korapiloa askatzen hasteko bideari ekin zion hezkuntza komunitateak, asmo argi batekin: euskaraz bizitzen jarraitzea eta elkarbizitza sustatzea. 2021-2022 ikasturtean abiatu zuen Zaldibiako Lardizabal eskolak euskararen eta kulturartekotasunaren proiektua, HUHEZI Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko adituen eta UEMAko teknikarien laguntzarekin, eta ordudunik, plano teorikoan ez ezik, eguneroko bizitzan ere eragin duten urratsak egin ditu eskolak.

Guraso bilerak berrikusi

Joan den ikasturtean, esaterako, beste pauso praktikoa eman zuten elkarrekin: ikasturte hasierako guraso bileren forma aldatu zuten, euskara erdigunean jarrita, familien elkarbizitza bul-



Ekimenean parte hartu duten eragileetako batzuk, Lardizabal herri eskolan. MIKEL ALBISU

tzatzeko. Bi arrazoiengatik egin dute aldaketa: batetik, hizkuntza irizpideengatik, eta bestetik, parte hartzea sustatzeko.

Irakasleak, urduri

Lardizabal eskolako zuzendaria den Eider Amundarainek adierazi zuen irakasleen balorazioa garrantzitsua izan zela esperientzia hau martxan jartzerako garaian, eta adierazi zuen lehen-dabiziko une batean, behintzat, irakasleek urduritasuna bizi izan zutela, gehienbat talde txikieta-

ko dinamiketan gurasoen artean gatazkak sortuko ote ziren kezka zutelako. Gero, ordea, balorazio positiboa egin zuten, eta egitura berriak dakartzan zailtasunen artean, lan gehiago egin beharra nabarmendu zuten irakasleek.

Guraso konplizeen laguntza

Gurasoek proiektu honetan izandako kolaborazioa aipatu zuen Amundarainek proiektu berri honen abantaila gisara, funtsezkoa izan baita, haren ustez, «guraso konplizeak lortzea».

Zentzu horretan, gurasoei ere eman zitzaion forma berria baloratzeke aukera, eta aipatu zuten, asko gustatu zitzaizela talde dinamiketan hitz egiteko tartea edukitzea, hau da, komunikazioa, gertutasuna eta gurasoen eta irakasleen artean sortzen den giroa baloratu zuten.

Eskolako zuzendaritzak ondorioztatu du proiektua fintzen joateko eguneroko lan gehiago egin behar dela, baina gurasoak eta irakasleak gustura sentitzen direla. ●

Ingudearen 2. edizioa egin zuten azaroan

GOIERRI— 2023ko Ingudearen topaketak izan zuen harrera ikusi ondoren, 2024ko azaroan bigarren edizioa egin zuten. Emun Aholkularitza enpresako Onintza Legorburu Larreak *Gehi* izeneko ikerketaren lehen emaitzak ezagutzera eman zituen bertan, Euskara planek enpresen lehiakortasuna zein neurritan indartzen duten aztertu ostean. Azken hamarkadetan lehiakortasunaren



Topaketetako enpresetako ordezkari eta eragileak. INGUDEA

kontzeptuak garapen handia izan du, eta ekonomiaz gain, gizartea eta ingurumenarekin lotutako aldagaiak ere kontuan hartzen hasi dira. Horrek Euskara Planak ere enpresaren lehiakortasunean eragile gisa kokatu ditu. Hori da *Gehi* ikerketaren abiapuntua.

2011n sortua

Euskara planek enpresen eraginkortasunean eragin positiboa

duela erakutsi eta ikerketa horren ondorioak aurkeztu eta gero, Goierriko Ederfil Becker, Irizar, AMPO eta Eredu enpresetan euskara sustatzerakoan arrakasta izan zuten praktika banaren berri ere eman zuten topaketan. Hain justu, enpresa horiez gain, CAF zein Indar Ingeteam enpresak eta Goieki garapen agentziak ere osatzen dute 2011. urtean sortutako Ingudea. ●IV

EGURDIAIN Etxeko egurra

Pago egurra
Etxera eramaten da

Barrenkalde, 13 Urdiain
Tel. 608 57 03 57
egurdian@hotmail.com

Zuzenki

AHOLKULARITZA
fiskala • juridikoa • kontablea • laborala

943 16 23 93
600 374 754
zuzenki@zuzenki.eu

Tel.: 943 162 393
Hirigoien, 7 LAZKAO
www.zuzenki.aholkularitza.eus



Zegamako San Martin eliza. ARKAITZ APALATEGI

Zegama UEMAKo kidea da

● Udalbatzak zinegotzi guztien aldeko botoekin hartu zuen erabakia martxoan.

● Orotara, 113 udal ditu Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak, eta horietatik 13 Goierrikoak dira.

I.G / I.V

ZEGAMA— UEMA Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko kide izatea erabaki zuen Zegamako udalbatzak martxoaren 14an egindako osoko bilkuran. EH Bilduren eta Zegama Lantzenen zinegotzi guztien aldeko botoak jaso zituen proposamenak, euskarari eusteko eta hizkuntza biziberritzeko beharrezkoa dela sinetsita. Guz-

tira, 113 udalerrri dira UEMaren parte, eta horietatik 13 Goierrikoak dira.

Kontzientziazioaren beharra Aldatzen ari da Zegamako euskaldunen profila, eta beheraka doa euskara lehen hizkuntza duten herritarren ehunekoa, eta batez ere beheraka ari da etxeko erabilera. Hala adierazi zuen Iker Zubeldia alkateak. Euskara ez da



«Arnasgunea garen arren, aldaketen aurrean zaurgarriak izaten jarraitzen dugu oraindik»

IKER ZUBELDIA
Zegamako alkatea

lehen hizkuntza askorentzat, eta horrek gero erabileran eragiten duela dio. Zentzu horretan, uste du UEMAKo kide izateak udala euskalduntzeko planak eta lanabesak eskainiko duela, eta herritarren kontzientziazioan eragiteko aurrerapauso bat izango dela.

Elkarlanaren beharra

Hizkuntza kontuetan elkarlanean aritzea ezinbesteko elementua da alkatearen arabera, udalaren eskumenetik kanpo dauden hainbat faktorek ere eragiten baitute hizkuntza ohituretan. Zentzu horretan ere, UEMAKo kide izateak Zegamari modu positiboan eragingo diola uste du: «Arnasgunea garen arren, aldaketen aurrean zaurgarriak izaten jarraitzen dugu oraindik». ●

Legazpiko Udalak euskara plana onartu du

LEGAZPI— Legazpiko Udalean euskararen erabilera normalizatzeko 2024-2027 eperako Plan Estrategikoa onartu zuen ekainean Udal Gobernu Batzordeak. Plan berriaren helburu nagusia euskara zerbitzurako eta lanerako hizkuntza normala izatea da, hala, herritarrek udalarekiko harremanetarako aukeratutako hizkuntza ofizialean jarduteko duten eskubidea bermatzen baita. Bost urtean behin egin behar izaten da plana.

Hitanoaren erabilera sarria baina erdipurdikoa

GOIERRI— Eibarko Badihardugu euskara elkarteak *Hitanoaren erabilera ikuspegi orokorra* inkestaren datuak argitaratu zituen urtarrilean. Goierri inkestari erantzun zioten hamalau herrietatik, hinko hizketa-moldeak egoera ona udalerrri bakar batean ere ez duela ondorioztatu zuten, eta erabilerari dagokionez, herri gehienetan «sarri» erabiltzen bada ere, batere ez edo batzuetan bakarrik diotenak ere ia beste horrenbeste dira.

Ateak Ireki programak jarraipena izan zuen 2024an ere

GOIERRI— 2023an martxan jarritako Ateak Ireki programak aurrera jarraitu du, eta 2024ko udako oporraldietan ere hiru aste egonaldia egin zuten Goierriin AEBetako euskal jatorridun gazteek. Euskal Herriko familien

eta diasporakoen artean hartu-emanak sortzea, zubiak eraikitzea eta etorkizunerako maila ugaritako erlazioa indartzea dira programaren helburuak.

Aldaketak

2024an, 2023an ikasitakotik tiraka, aldaketak egin zituzten. Euskal Herrian barrena ibili ziren hiriak, herriak, ekitaldiak eta erakundeak ikusten, baina eguneko bizitzan eta euskara ikasteen jarri zuten arreta. ●IV

Euskarari eutsi diote Ordizian

ORDIZIA— Ordiziako hamalau enpresak euskararekiko konpromisoa berretsi zuten otsailean, Lanean egitasmoaren barruan egindako lan-keta jasotzen duen hiztarmena sinatuta.



HIZKUNTZA

berean hitz egiten dugu

ORKLIN, konfortaren eta pertsonen segurtasunerako soluzioetan munduko liderra izanik, hizkuntza berean hitz egiten dugu. Konpromiso sozialaren, zintzotasunaren, talde-lanaren, aniztasunaren eta iraunkortasunaren hizkuntzan aritzen gara... eta gainera euskaraz.

“Funtsezkoa ikusezina da begientzat”
Antoine de Saint-Exupery



'Harro Herri', korrika, 158 kilometro Goierrin barrena

autorrecambios
GOYERRI
Automobilien zerbitzu orokorrak

☎ 943 884 550 📞 690 948 999 ✉ info@goyerri.com 🌐 www.goyerri.com

📍 Antzizar 1, 20200 Beasain (Gipuzkoa)

zabale
— belardenda

Santa Maria, 8 - ORDIZIA
www.zabale.eus

Gure zerbitzuak

- Akupuntura
- Pisua kontrolatzea; argi interakzioaren ebaluazioa
- Haurrentzako elikagaiak
- Sendabelarrak
- Elikagai biologikoak, glutenik gabeko elikagaiak eta kosmetika naturala
- Kirolarientzako produktuak

MARGOGAI.com

Pinturak
Tresnak
Dekorazioa, industrialia
Makineria

DURAVAL

Lazkaibar 1-1 BEASAIN
Tel./faxa: 943 88 22 93 - lazkaibar@margogai.com

inausti hartz klinika
1998tik

IRRIFARRA
bihotzean hazten
eta
AHOAN loratzen
den hazia da

...ahoko lorezainak gara

Tel. 943 88 46 28
Joan Iturralde, 3 behea 20200 Beasain

EGUMENDI MANGANESE STEEL
manganeso-altzairuak

www.egumendi.com
Ipiñarrieta, 48 - Tel.: 943 72 33 01
URRETXU



CAF enpresako LAB sindikatuko ordezkariak Beasainen korrika. KORRIKA



Goierriko suhiltzaileak ere korrika euskararen alde. KORRIKA



Urretxu-Zumarragan, gauzez. KORRIKA

AUZOKI
KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOAK 5L
Kol. Zenb. 599

Araba kalea, 1
ORDIZIA
auzoki@auzoki.eus
Tel.: 943 087 486
688 651 379

Campagnole doktorea
kolegiatu zkia. 20.000.473

Intsausti doktorea
kolegiatu zkia. 20.001.002

Inplantologia - Hartz estetika - Ortodontzia

HAUREN HORTZAK
ZAINTEKO PROGRAMA PADI

Nafarroa Etorbidea, 8-1.-A Beasain
Tel.: 943 085 229 663 934 232

Martxoaren 14an abiatu zen 23. Korrika, Irundik, eta Euskal Herria zeharkatuta, martxoaren 24an amaitu zuen ibilbidea, Baionan. Goierriatik martxoaren 23an pasatu zen. Legazpitik sartu eta eskualdean 158 kilometro egin ondoren, Legorretatik irten zen. Milaka herritar batu ziren euskararen aldeko lasterketara.



Idiazabalgo Guraso Elkarteko kideak. KORRIKA



Gazte bat lekukoa eramaten Olaberrian. KORRIKA



Realaren Segurako Txanbolinpe peñako kideak lekukoarekin. KORRIKA

Goenaga
ACERO INOXIDABLE

ALTZAIRU HERDOILGAITZ
SALEROSKETA

www.goenagainox.com 943.880.663 • Zaldibia

ZEGAMAOKINDEGIA
Eskuz egindako ogi naturala

Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 **ZEGAMA**

oreka
fisioterapia zentrua

Ainitze Jauregi
Kol. zkia. 179

- ERREHABILITAZIOA
- MANTENU TRATAMENDUA
- MASAJE TERAPEUTIKOA
- KIROL MASAJEA
- LUNBALGIA ETA ZIATIALGIA
- DRENAJE LINFATIKOA

LARDIZABAL KALEA 3, Behea SEGURA Tel.: 943 80 02 88 / 646 32 94 79

• Sagardotegiak
• Upategiak
• Aireportuak
• Edozein motatako ekitaldiak

FILIP - TAXI
671 702 032

Ordizian eta Goierri osoan

♿ 8 ↑

arri
MEKANIZATUAK
30 urte

Salbatore auzoa, Beasain
www.arriweb.com

—KALITATE ONEKO—
INPRESIOAK
A0
NEURRIRA ARTE
• 840mm x 1.180mm

EGUZKI
INPRIMATEGIA

A4 - A3 - A2 - A1

FOTOKOPIAK • PLANOAK • KARTELAK
PROIEKTUAK • DOKUMENTUAK • TESIAK

Nafarroa eforbidea, 17 - BEASAIN
Tel 943 88 94 82 / Faxa 943 88 60 44
eguzkiinprimategia@gmail.com

ZUEKIN
KOMUNITATEAK

@zuekin@zuekin.eus

GERTUTASUNA
KOMUNIKAZIOA
KONPROMISOA
ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA

Gure gunea. Zure gunea.

📍 Elosegi 20 • Lazkao • 943 88 65 53 📞 621 27 15 70



Zeraingo herrigunea. ARKAITZ APALATEGI

Zeraingo baserriar bikotea, atxilotuta

● Lan esplotazioa egotzita atxilotu zituzten ekainean.

● Egunero egiten zuten lan, atsedetik eta bajarik hartzeko eskubiderik gabe.

K.G / I.V

ZERAIN— Gazta egiten duten Zeraingo baserri bateko jabe diren senar-emazte batzuk atxilotu zituzten ekainaren 5ean, langileen eskubideen aurkako ustezko delituengatik, lan-kontraturik gabe eta egoera irregularrean lana emateagatik. Pertsona horiek

asteko zazpi egunetan lan egin behar zuten, atsedetik hartzeko aukerarik gabe, baita gaixorik zeudenean ere, eta hilean 300 edo 400 euro artean jasotzen zituzten, jabeen borondatearen arabera.

Tolosako Guardiako Instrukzio Epaitegiaren esku utzi zuten auzia. Ikerketa maiatzaren 29an

hasi zen. Espainiako Gobernuak Euskadin duen Ordezkaritzak jakinarazi zuenez, Gipuzkoako Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritza Probintzialak Zeraingo baserri batean kontrol bat egin zuen, laguntza-eskaera bat jaso zutelako. Baserriari ikuskapena egin ziotenean, poliziek lau langile aurkitu zituzten; bakar batek ere ez zuen lan-kontraturik, ezta, beraz, Gizarte Segurantzako afiliatorik ere. Gainera, horietako hiru egoera irregularrean zeuden.

Langileen adierazpenak

Langile horiek Poliziari egindako adierazpenetan, adierazi zuten lanaldia astean zazpi eguneko zela eta ez zutela atsedetik hartzeko aukerarik, ez eta gaixorik zeudenean ere. Hilean 300 eta 400 euro artean jasotzen zituztela, jabeen borondatearen arabera.

Gaineratu zuten, ez zuten inoiz formakuntzarik jaso gauda zaintzeko. Horrela, animaliekin lan egiteko norbera babesteko ekipamendurik gabe lan egiten zuten eta kutsa zitzaketan gaitasun eraginpean zeuden. Langile guztiak egoera ahulean zeuden, eta baldintza horietan lan egitea beste aukerarik ez zuten.

Udalak adierazpena egin zuen gertaeraren harira, eta «irmoki gaitzetsi» zuten «pertsonen eskubideak urratzea». ●

Judit Garzia, Elikadura Ekologikoaren Kontseiluko lehendakari

GOIERRI— Olaberriko Etxeberri-Goikoa baserriko Judit Gartzia Llorens izendatu zuten martxoan Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluko lehendakari berri gisa. Otsailaren 5ean egin zuten eratze bileran osatu zen kontseilu berria, eta egun horretan finkatu ziren lehendakaritza eta lehendakariordetza karguak, hautagaien arteko bozketa bitartez. Lehendakariordetza beste goierritar batek hartu zuen, Itsasoko Mandubi-Zar baserriko Garikoitz Aiesta Etxanizek. Lau urterako hartu dute kargua, 2023-2027 epealdirako.

Kontseilu berria

Elikadura ekologikoaren alorrean jarduten duten azpisektoreetako ordezkariak (nekazari zein abeltzainak, merkaturatzaileak...) osatzen dute Kontseilua. Eusko Jaurlaritza, hiru Foru Aldundiak eta kontsumitzaileen ordezkari bat ere parte dira. ●IV

Energia komunitateak eskualdeko hainbat herritan



Itsasondoko Hitzar energia komunitatea. LOINAZ AGIRRE

● Legazpin, Zerainen, Urretxun eta Itsasondon abiatu dituzte 2024an.

GOIERRI— Goierrin ere tokiko energia komunitateak lantzen eta sortzen lan egin dute eragile ezberdinek 2024an. Otsailan, Legazpiko Tokiko Energia Komunitatea sortu zuten, eta urtean zehar informazio saioak eta bazkideak batzeko kan-

painak egin dituzte; Zerainen, martxoan eman zuten Zeraingo Energia Kooperatibaren berri, urte amaieran martxan egoteko helburuarekin, autokontsumoa sustatzeko; Ekiola Urretxu kooperatiba maiatzean jarri zuten martxan, familia eta negozioen energia beharrak asetzeko; eta Itsasondon, 2022an sortutako Hitzar Energia Komunitateko ki-deak ekainean hasi ziren herriko

hamalau etxebizitzatan Iraola baserriko ustiategiko teilatuan jarritako hamar eguzki plaketatik sortutako energia kontsumitzen. Proiektua Itsasondotik Ordiziara zabaltzeko ekimena aurkeztu zuten urrian.

Beste hainbat herritan ere energia komunitateak sortzeko lanean ari dira: Zaldibian, ekainean abiatu zituzten bilerak, eta Seguran, irailean. ●IV/LG


comaypa
Paper & Board Converting

San Migel, 7
20250 LEGORRETA (Gipuzkoa)
Tel.: 943-80 61 90 - Faxa: 943-80 64 42


UZBaleike

www.uzbaleike.com

ZUBIKOETA, S.L.
GASOLINDEGIA



**BEROGAILUENTZAT
GASOLEOA**
AUTO - GARBIKETA
ERREGAI MOTA GUZTIAK

Zubikoeta Industrialdea, 1
Tel.: 943 180 486
Faxa: 943 180 487
zubikoeta@zubikoeta.es
ATAUN

Hainbat lan protesta egin dituzte 2024an ere Goierriko langileek, eta baita lan hobekuntzak lortu ere haien aldarrikapenekin

GOIERRI— Lan protesta eta mobilizazioak egin zituzten iaz ere eskualdean hainbat enpresatako langileek. Hobekuntzak ere lortu zituzten protestei esker. Urtarrilean, Beasaingo eta Irungo CAF lantegietan garbiketa egiten duten ISS Facility Services enpresako langileek lan hitzarmena hobetzea lortu zuten, aurreko urtean hasitako negoziazio prozesuaren ondoren.

Urtarrilean ere, Olaberriko

Lidl supermerkatuko langile bat kaleratu izana gaitzesteko eta langile horri elkartasuna adierazteko mobilizaziora deitu zuen LAB sindikatuak, eta uztailean kaleratutakoari babesa adierazteko elkarretaratzea egin zuten. Olaberriko ArcelorMittalen bi orduko lanuztea egiteko deia egin zuen ekainean LABek, enplegu politikan enpresarekin akordioa lortzeko. Apirilean, langileen osasuna lehenesteko eskatu zuten

CAFeko langileek Beasaingo kaleetan egindako manifestazioan, lan osasuneko nazioarteko egunaren harira. Beasaingo lantegian amiantoa kentzeko egin zituzten lan batzuen ondorioz, material hori kentzeko protokoloa aktibatatu bazen ere, obrak burutu ostean, legez onartutakoa baino amianto aztarna handiagoak detektatu zituzten. Langileen Batzordeak berretsi zuen «langileen osasuna arriskuan» jarri zela.

Irailean, Idiazabalgo Jason zortzi langile kaleratu zituztela salatu zuen enpresako batzordeak, eta horren aurka egiteko grebara jo zuten langileek. Zazpi greba-egun egin zituzten.

Antzinatasuna

Uztailean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak tituludun langileei antzinatasuna ordaintzera behartu zuen CAF enpresa. 1.017 langileri eragin

zuen erabakiak. 2023ko urrian egin zen epaiketa, eta azaroan, Donostiako Lan Arloko lehenengo epaitegiak batzordearen eskaera ukatu zuen, enpresari arrazoia emanez, baina helegitea aurkeztu zuen Enpresa Batzordeak, eta arrazoia eman zion. Langileen ordezkarietzat azken epaia mugarri garrantzitsua izan zen, «borroka sindikala beharrezkoa» dela erakusten duela azpimarratuz. ●LG

Goierritik ere bat egin zuten lehen sektoreko mobilizazioekin

● 38 eragile, udaletxe, elkarte eta enpresaren babesa izan zuten deialdiek.

I.G / I.V

GOIERRI— Gipuzkoako lehen sektorea mobilizatu zen martxoaren 1ean, EHNE eta Enba sindikatuek zein Gipuzkoako Baso Elkartek (GEBE) deitutako *Gipuzkoako lu-*

rra esnatuko den eguna lelopean egindako manifestazioan. Orotara, lehen sektoreko 38 eragile, pare bat udaletxe, elkarte eta enpresaren babesa izan zuten.

Mobilizazioak, bere horretan, bi alde izan zituen: batetik, lurraldeko hiru puntutatik atera ziren ibilgailuak iritsi ziren Donostiako erdigunera, eta behin erdigunea igaro ostean, Gipuzkoako Batzar Nagusien egoitzaraino joan ziren. Bertan, ekitaldi jendetsua egin eta hantxe irakurri zuten Mani-

festua; bestetik, Batzar Nagusietako ordezkariari eman zitzaizen dokumentua.

Zutabekako antolakuntza

Hiru zutabetan banatuta abiatu ziren baserriarrak Donostiarantz, -Goierri-Tolosalde, Urola-Kosta eta Bidasoaldea-Donostia- denak elkarrekin iritsi zitezten Gipuzkoako Batzar Nagusien egoitzara. Goierriko baserriarrak, besteak beste, traktoreak eta ibilgailuak lehen sektorearen aldeko pankarta eta mezuekin atonduta zituztela, goizeko 08:30ean elkartu ziren Legorretako tren geltokiaren ondoko aparkalekuan. Horren ondoren egin zuten bat Tolosaldeko baserriarrek. ●

Goierritar baserriarrak Legorretan.
MIKEL ALBISU



Olaran Talentu Faktoria proiektua aurkeztu zuen udalak urrian

BEASAIN— Olaran Talentu Faktoria proiektuaren berri eman zuen Beasaingo Udalak urrian. Etorkizunera begira profesional kualifikatuentzat egoitza izan eta tokiko zerbitzu publikoak hobetzeko helburua du proiektuak, udalaren esanetan «mugarri bat» dena «udal gobernuaren proiektu estrategikoen artean».

Aukera ezberdinak proposatu zituzten: talentu egoitza bat sortzea, bi hilabeteko egonaldiak; orduka alokatzeko espazioak; ekintzailatza aholkularitza zerbitzua; eta tokiko ondare industrialaren erakusgarri izango litzatekeen espazioa, besteak beste.

EH Bilduren erantzuna

Beasaingo EH Bilduk Olaran «arduraz eta beasaindarrekin» lantzeko eta eragile ezberdinekin elkarriketa prozesuak irekitzeko eskatu zion EAJren udal gobernuari. ●LG

Alegiko Sindikatoa inauguratuta, zerbitzu fisiko eta digitalarekin

GOIERRI— Itsaso, Gabiria eta Ormaiztegi hartzen dituen Alegi auzoko Sindikatoa dendaren inaugurazioa egin zuten ekainaren 14an. Itsaso Herria herri ekimenak sustatutako proiektua da.

Duela ia 100 urte Alkartasuna erakundea sortu eta gero Alegiko Sindikatoa izenez ezagutu zen denda egon zen leku berean jarri dute martxan. 50 bazkideetik gora ditu elkarteak. XX. mendean zehar helburua bertakoek eta ingurukoek behar zituzten elikagai eta gainerako osagaiak eskaintzea zen, eta orain ere hori dute helburu, baina baita elikagaiak ahalik eta gertukoek eta osasungarrienak izatea ere, elikadura, kutsadura eta energia krisiari aurre egiteko zerbitzu berritzailea eta iraunkorra eratzea, alegia. Denda fisikoaz gain, zerbitzu digitala eskaintzen dute, *alegikosindikatoa.eus* webgunean. ●JZ



laz ere, kultur ekoizpen oparoa

● **GOIERRIKO HITZAK** jasotako lanen artean, euskarazko ekoizpena da nagusi.

GOIERRI— 2024. urtea hasi bezain pronto, argitalpenen berri ematen hasi ziren Goierriko eragile, elkarte, artista, idazle edota musikariak. Literatur lanak argitaratu dira gehien eskualdean, baina izan dira bestelakoak ere:

ikus-entzunezkoak, lan musikalak, antzezlanak eta erakusketak. Azken horietan, argazkiak, margolanak eta eskulanak izan dira nagusi. Aurretik argitaratutako lanen edizio berriak ere kaleratu ziren iaz.

GOIERRIKO HITZAK iazko urtean jasotako artean, literatura, musika eta ikus-entzunezkoetan, euskarazko lanak izan dira nagusi: 30 lan euskaraz, eta 16 gaztelaniaz. Ingelesez edo frantsesez lanik argitaratu duen goierritarrik ere izan da. ●LG



Gorka Gomez, 'Bizilagunak' erakusketako bi lagunekin. JULIAN GIL



KULTUR EKOIZPENA

Liburuak

Lizar Begoña. *Mundu zitalaren kontra* eleberria, 25. Igartza literatur sariaren emaitza.
Jose Antonio Azpiazu. *El cerdo en la historia de los vascos: nuestro sorprendente parentesco con un animal injustamente despreciado* ikerketa lana.
Ane Odriozola. *El valle del hierro* eleberria.
Patxi Zubizarreta eta Jokin Mitxelena. *Munduketariak*, Euskal Eskola Publikoaren 31. Jaiko liburua.
Elixabete Perez eta Leyre Arrieta. *Sukaldetik agorara. Benita Gorostizu Imaz. Emakumeak lurralde ilunetik irteten*, Benita Gorostizu altzagarraren idatzitako oinarrituta.
Txusma Perez Azazeta. *Ascensionen a las montañas mas bellas*, Euskal Herria bildumako 63. alea.
Liss Evermore. *Souvenirs d'un autre monde*.
Pello Lizarralde. *Lanbroa* eleberria.
Libe Andueza. *La magia del color*. Argibide teoriko eta praktikoa kolorearen erabilerarako.
Mariluz Cabezas. *La villa del angel* eleberria.
Kristina Galarraga. *Regreso al*

pasado eleberria.

Juanjo Moral. *Vencer en tierra de espías* eleberria.
Joxe Mari Berasategi. *Gorriren autobiografia. Nobela bat olerki lerrotan. Autobiography of Red. A novel in reverse* euskaratuta.
Karlos Gimenez. *Hitzahots* disko liburua.
Lourdes Garrido. *Toda una vida buscando mi proposito* gida-liburua.
Betzaida Urtaza. *Gure aitona arrantzalea*, euskal mitologiaren bildumako hirugarren liburukia.
Mari Angeles Garrancho, Eneko Garmendia eta Nagore Sanchez. *Gau Beltza, Oriar jau-regiko misterioa*.
Mari Romero. *La raya del pantalón* eleberria.
Markos Manchado. *Adiv eta La ultima semana*.
Maitane Ormazabal eta Igor Meltxor. *Irri*, Iker Irribarria Olazabali patxadaz egindako galderen erantzunak.
Atauniker. *Sutondoaren xarma, sukalde-errezetak 1964-1965*, Juliana Arratibel Dorronsoro ataudar sukaldariak herriko neskenzat eta emakumeentzat antolatu zituen kurtsoetako errezetak berreskuratuta.
Juan Luis Larraza. *Berno* eleberririk historikoa, Ataun eta Sakana lotzen zituen bidea ardatz.
Felix Ibargutxi eta Eva Aztiria. *Atzoko Egialde*, bigarren edizioa.

Felix Ibargutxi. *Santa Maria kalea*.
Katalina Goia Murgiondo. *Libro de cocina*, laugarren edizioa.

Musika

Starblues. *Bizi baten gezurra* diskoa.
John Dealer & The Coconuts. *Set On Fire* abestia.
Balloon Frame. *56 lerro* abestia.
Unai Albisu. *Sacame un badago de esos bilduma*.
Unidad Alavesa. *Motoki, zakurreri, egurreki...* diskoa.
Gari. *Behin bizitza* diskoa.
Muxutruk. *Loinatz jaiak* abestia.
Añube. *Errautsetatik loratzen* diskoa.
Xarma Leone. *Aizu guapa!* abestia.
Mikel Urretagoiena. *Denbora* diskoa.
Garazi Zabaleta. *Unlike* obra.
Elbereth. *Omen*, diskoa eta liburua.
Aimar Z. *Mi core* EPa.
Eider Saez. *Nola aldatu gara?* diskoa.
Gorka Hermosa. *Oparoa*.

Ikus-entzunezkoak

Arri Iraeta. *Kuxkuxtu* dokumentala.
Iker Iriarte. *Auzolangiltza* dokumentala.
Imanol G. Gurrutxaga. *Bidean* film laburra.
Maidar Insausti. *Arrano Kultur*

Elkarteak 40 urte. Dokumentala.
Gattiken. *Urretxuko kantu afariak 30 urte* dokumentala.
Lardizabal Herri Eskola. LH6ko ikasleen Txokorako bidea.

Antzerkia

Urrup Antzerki Taldea. *El parto antezlana*, Ana Martinez Urrupoko kideak idatzia.
Bertso sortak/testuak
Alaitz Sarasola. *1646* bertso sorta.
Sara Aranburu. *Basa mortu, arrotza abortu hizki-zopa jolasa*.
Ekaitz Goikoetxea. *Naparrak gara gu ere* bertso sorta.

Erakusketak

Gurutze Mujika. *Inguruko paisaiak* (margolanak).
Maixeta Altolagirre. *Sustraiak* (margolanak).
Gorka Salmeron. *100 urte. Moderna eta / edo garaikidea* (argazkiak).
Dani Uribe-Etxebarria eta Julene Alustiza. *Ahizpak* (margolanak).
Gurutze Mujika. *Olioeko paisaiak* (margolanak).
Gorka Gomez. *Bizilagunak* (argazkiak).
Eli Mendia. *Padurak eta itsas beherak* (margolanak).
60. Beasaingo Hiria eta 25. Igartza Saria. *Irabazleen eta finalisten argazkiak*.

Zumalakarregi Museoa. *Karliskaturak* (ilustrazioak).
Iñaki Zabaleta. *Koloreak* (margolanak).
Mari Carmen Ibañez. *San Migel baselizaren altxorak* (margolanak).
Goierriko artistak. *Nahasi* artistikoa (margolanak).
Mutiko Kristal. *Argiak itzaltzen direnean* (margolanak).
Carlos Mediavilla. *Antio* (argazkiak).
Ciriaco Fabian. *Pirograbatuak*.
Lenbur Fundazioa. *Legazpitik mundura* (eskulturak).
Bicktor Probanza. *Argazkiak*.
Mari Tere Martinez. *Eskultura bizidunak*.
Roberto Oria. *Simetriak* (argazkiak).
Joxe Mari Telleria. *Bolaberlak* eskultura.
Kontxi Simon eta Iñaki Galabide. *Paperarekin egindako lanak eta margolanak*.
Burdinola elkarte. *Essaouiratik Rhineraino* (argazkiak).
Ramon Sanchez. *Como hemos cambiado* (marrazkiak).
Ana Cabezas. *Txindokiren 36 bista pandemia garaian* (argazkiak).
Ortzadar. *Argazki erakusketa*.
Uxue Iruretagoiena. *Trazuak trazu.* (marrazkiak).
Luis Collado. *Maketak*.
Goierriko Artisten 23. Topaketa. *Margolanak*.

Lanbroa.
Bidezahar, 7
Tel.: 943 03 75 27
20700 Zumarraga

Lanbroa bi
Kale Nagusia, 24
Tel.: 943 73 17 98
20230 Legazpi

BELARDENDA

-Estetika
-Dietetika
-Produktu biologikoak

1988tik zuekin

OTAIZABAL
aroztegia

T 943 16 06 84
M 605 757 623

Salvatore Auzoa. Izarraitz industrigunea.
otaizabal@otaoizabal.eus
BEASAIN

www.otaoizabal.eus

Loinaz
KAFEAK

ORAIN
KAPSULETAN
ERE BAI !!

San Inazio, 14 **Beasain**
943.885128
Zubierreka industrigunea 53, **Lazkao**

GIPUZKOA

Ekin.

—
*Gipuzkoa
oparoagoa
izateko.*

Zaindu.

—
*Pertsona guztiak eta
horien ingurukoak
zaintzen dituen.*

Bizi.

—
*Ondo eta
duin bizi
daitezen.*



GIPUZKOA
Foru Aldundia

'Gipuzkoako dantza maisuen puntuak eta aldairak' aurkeztu dute

● Mikel Sarriegiren hogeitortetik gorako ikerketa lanaren emaitza da liburua.

● Durangoko Azokarako argitaratua, martxoan aurkeztu zuten.

● Elkarte eta erakunde desberdinen babesak izan du.

A. V / I. G / I. V

BEASAIN— Mikel Sarriegi Etxezarretak (Beasain, 1965) martxoaren 9an aurkeztu zuen Beasaingo Igartzako jauregian *Gipuzkoako dantza-maisuen puntuak eta aldairak*. Oinordetza ezkutua liburua. Ekitaldian hainbat dantzari, lagun eta gonbidatuk parte hartu zuten, nahiz eta ez zen inolako deialdi publikorik egin.

Liburua ondu aurretik, Goierriko eta Gipuzkoako dantza-sistema aztertu zuen Sarriegik, Juan Inazio Iztueta (Zaldibia, 1767 - Zaldibia, 1845) dantza-maisuaren oinordetza ezezaguna. Hogeitortetik gorako ikerketa lanaren emaitza jaso zuen liburuan. Durangoko Azokarako argitaratu bazuten ere, martxokoa izan zen aurreneko aurkezpen publikoa, nahiz eta gerora ere, herri gehiagotara zabaldu den, bestelako aurkezpen xumeagoak eginda.

Babesleak

Argitalpena Aranzadi zientzia elkartearen babesaz, Aurtzaka dantza taldearen eta Dantzan elkarrearen laguntzaz, eta Gipuzkoako



Mikel Sarriegi Etxezarreta bera, aurkezpen ekitaldian. IÑAKI GURRUTXAGA

Foru Aldundiaren, Beasaingo, Ordiziako, Donostiako, Zumarragako, Zaldibiako, Oñatiko eta Segurako udalen diru-laguntzari esker kaleratu zen. Beasaingo ekitaldian egon ziren, besteak beste, Adur Ezenarro (Ordizia), Ioritz Berra (Zaldibia), Mikel Serrano (Zumarraga) edota Izarra Urdalleta (Segura) alkateak, Juantxo Agirre Aranzadi Zientzia Elkarteak idazkari nagusia, baita liburuan testigantza eman duten hainbat dantza-maisu ere.

Mila orrialde, 600 irudi, eta taula eta grafiko kopuru handi batekin hornituta, ezkutuan gorde den oinordetza modu antolatua eta arrazoituan jarri zuen dantzarien esku. ●

Ohorezko kofradiakide izendatu dute Mikel Sarriegi maisua

● Igartzako Dantzarien Kofradiako kideek, Mikel Sarriegi Etxezarreta dantza maisu beasaindarrak aukeratu zuten irailan ohorezko kofradiakide izendatzeko. Kofradiaren sustatzailea izan zen, eta gaur-gaurkoz ere horren parte da. Euskal dantzari egin dion ekarpen

handiagatik izendatu zuten, meritu eskerga bildu baitu taldekideen ustetan izendapen hau jasotzeko: 1972an hasi zuen beasaindarrak dantzari bezala ibilbidea eta zazpi aldiz irabazi zuen Euskal Herriko Aurreku Txapelketa. Besteak beste, Raimon Gamayo, Martin Iraola eta Jesus Mari Garate izan zituen gidari. 1979tik dihardu Aurtzaka Dantza Taldean eta bertako dantza-maisu eta zuzendari artistikoa da.

KGT Kolektiboaren Lutxi liburutegia sortu dute

ORDIZIA— KGT Kolektiboaren Lutxi liburutegia apirilaren 13an ireki zituen ateak, ordiziarrentzat. Dorrea eraikinean dago, Jabekuntza eskolaren eta KZ Gunearen artean. Euskarazko eta askotariko gaien inguruko hamaika aldizkari eta liburu edonoren eskura jarri dituzte.

Bertsolaritza ondare immaterial izendatu du Jaurlaritzak

GOIERRI— 2018an Nafarroan, 2022an Ipar Euskal Herrian eta orain, 2024an, EAEn izendatu da bertsolaritza Kultura Ondare Immateral. Eusko Jaurlaritzak ekainaren 11ko Gobernu Kontseiluan izendatu zuen *Euskadiko interes kultural immaterialeko ondare*. Aitortza hori «komunitate oso baten lanari esker lortu» dela zion Bertsolaritza Elkarteak. Hala, kultura ondare immaterialak dituen ezaugarriak aitortzen zaizkio bertsolaritzari.

Legazpiko ezpata dantzak 400 urte bete ditu

LEGAZPI— Legazpiko artxibategian gordeta dagoen herriko ezpata dantzaren lehenengo erreferentzia zehaztu hartatik ekainaren 9an 400 urte igaro ziren. Onomastika hori ospatzeko, Sustraiak Dantza Taldeak jaialdia egin zuen, Goiz Deia bandako txistularien laguntzaz dantzatuta; izan ere, dantza mota hau desagertzeaz zegoela, dantza talde honek berreskuratzea lortu zuen herrian.

TALDEA
GAES
SISTEMA MEKANIKOAK
SOLUZIO INTEGRALAK

Pol. Ittola 5 C,
20 200 Beasain
943 881 317

Paseo Ubarburu 58,
20014 Donostia
943 445 777

www.grupogaes.com

ARAMAKO UDALA

Gure hizkuntza eta kulturaren alde

943 88 07 39
www.arama.eus



Teodoro Ruiz 'Nafarra'-ri egindako omenaldiko argazkia, otsailean, Zelai Ariztin. MAIDER INSAUSTI

Omenaldia bizitza osoari

● Bizitza osoan arlo ezberdinetan egindako lanarengatik omenaldi beroak jaso dituzte 2024an hainbat goierritarrek.

L.G/A.M/J.Z

GOIERRI— Euskalgintza, musikagintza edo margogintza, kultur arlo ezberdinetan bizitza osoan egindako lanarengatik omenaldi beroak jaso dituzte 2024an hainbat goierritarrek. Bakoitzak bere ar-

loan jardun du, eta denei aitortza eskaini zaie herri mailan zein maila instituzionalean.

Otsailean, Teodoro Ruiz *Nafarra* omentzeko ekitaldia egin zuten zumarragarrek Zelai Ariztin. *Nafarra* Zumarragako bandako kidea da eta bandaren 150 urteetatik 50 daramatza bertan. Kontzertua egin zuten haren abesti gogokoekin, eta omenaldi ekitaldia izan zen gero. *Nafarraren* «konpromisoa» eskertu eta 50 urteko ibilbidea goraiatu zuten.

Martxoan, berriz, Jose Luis Etxeberria *Xapre* zaldibiarrari omenaldia egin zioten, Goierri-

tik kanpo, Azpeitian. Trikitilari zaldibierra zen izar gonbidatua 34. Sanjosestako Trikiti Jaialdian, Euskal Herriko Trikiti Elkarteak hura aukeratu baitzuen ohoreak emateko. Musikari eta trikitilari ugarik bat egin zuten oholtzan, asko Goierritik joandakoak.



Juan Joxe Agirre
Artxibozaina



Joxemari Telleria
Artista

bilakatu zen.

Eta abenduaren hasieran, Joxemari Telleria artista, pertsona eta euskaltzalea omendu zuten zeraindarrek elizan. Hark egindako isileko lana aitortu zioten, eta baita egunerokotasunean herriko kultur ekimenetan egiten duena ere. Organo jotzen aritzen da elizan, Uharka abesbatzako zuzendaria da, Antolar jubilatua elkarteko zuzendaria eta Solkie

dantza taldeko txistularia ere bai, besteren artean.

Intxausti eta Mendiguren
Denak izan ziren haien omenaldietan. Izan ziren, baina, hil ondorengo omenaldiak ere. 2023an hil ziren Xabier Mendiguren eta Joseba Intxausti omendu zituzten iaz. Apirilean, Mendiguren idazle eta itzultzaile ezkiotarra omendu zuten Andoaingo Martin Ugalde kultur parkean. Euskalgintzaren Kontseiluko lehendabiziko idaz-



Jose Luis Etxeberria 'Xapre'
Trikitilaria

kari nagusia izan zen eta euskaltzain urgazle ere izendatu zuen Euskaltzaindiak. Intxausti, Seguran, bere jaioterrian omendu zuten, irailean, euskara eta euskal kultura modernizatzeko idazten, ikertzen eta eragiten egindako etengabeko lanarengatik. ●

Alaitasuna errondailak 60 urte bete zituen 2024an

LEGAZPI— Bautista Armendarizek sortu zuen 1964ko urtarrilaren 3an Legazpiko Alaitasuna errondaila, eta hala, 60 urte bete zituen 2024an. Urteurrena ospatzeko 200 lagun elkartziren Azokan irailean, lehengo eta oraingo kideak.

24 orduz dantzan Ostadarren 40. urteurrena ospatzeko

BEASAIN— Ostadar Dantza Taldeak 40. urte bete zituen iaz, eta urteurren borobila ospatzeko dantza maratonia antolatu zuen. Abenduaren 21ean, 24 orduz etenik gabe dantzan ibili ziren, Euskal Herrian zehar aurki daitezkeen dantzak eskainiz.

Gipuzkeraz idatzitako lehen liburua ordiziar batena izan zen

ORDIZIA—Arantzazuko Liburutegi eta Artxibo Frantziskotarraren arabera Jose Otxoa de Arin ordiziarrena da gipuzkerazko liburu zaharrena: *Doctrina christianaren explicacio Villa Franca Gipuzkoaco onetan euscaraz it eguiten dan moduan*, 1713koa.

Arranoren urteurrena 2023an, 2024an ospakizunak

BEASAIN—1983an sortua, 2023an 40 urte bete zituen Arrano Elkarteak. Urteurreneko ospakizunak, baina, 2024an izan ziren. Jolasak, hitzaldiak, tailerrak...egin zituzten, apirilera arte. 40 urtetako historia jasotzen duen ikus-entzunezkoa ere ondu zuten.

Joxepane herri ostatuaren 30 urteak ospatu zituzten

ZALDIBIA— Joxepane herri ostatuaren 30. urteurrena ospatzeko ekintza ezberdinak antolatu zituen azaroan Xirika elkarteak. Dantza emanaldia, txistulariak, bertsoak, hitzaldiak, dokumental proiektzioa eta 70 bat laguneko bazkaria izan zituzten.

LORTEK

MEMBER OF BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

**GARATZEN DITUGUN SOLUZIO TEKNOLOGIKOEN
INDUSTRIA ERALDATZEN LAGUNTZEN DUTE**

LORTEKen lan egiten dugun pertsonak proiektu profesional eta pertsonal bat partekatzen dugun talde bat gara



Xepeño Agirre bolari segurarra hil zen, 83 urterekin

SEGURA— Segurako Xepeño Agirre bolaria otsailean hil zen, 83 urterekin, gaixotasun bortitz baten ondorioz. Bola txapelkun handia izateaz gain, txapel ugari lortu zituen, Euskadikoak eta Gipuzkoakoak, bai banaka, bai semeekin, ilobekin edo klubeko kideekin bikotea osatuta, bai Segurako Txoritagi taldearekin.

Errugbiko teknifikazio zentroa jarri dute martxan

ORDIZIA— Errugbiko teknifikazio zentro bat jarri zuten otsailean martxan Ordizian, Altamirako instalazioetan. World Rugby-k *Pathway* izeneko plan bat dauka martxan. Horren bidez jokalarik gazteak goi errendimendura zuzentzen laguntzeko baliabideak eskaintzen dituzte, alegia, formakuntzan laguntzea du helburu.

Errugbiaz gozatzeko, Bera-Bera eta Ordizia neskak elkartu dira

ORDIZIA— Ordizia Rugby Elkarte-k jokalarik kopurua muga bat izan da askotan emakumeak errugbira gerturatzeko garaian. Horregatik, 2023/2024 denboraldirako Bera Bera nesken taldea eta Ordizia Rugby Nesken taldea elkartu ziren apirilean, elkarrekin Emakumeen Euskal Ligan jokatzeko, Bera Bera Ordizia izenpean.

Alazne Estensoro Realeko lehen taldera igo da

LAZKAO— Alazne Estensoro Maziator atezain lazkaotarrak Realeko lehen taldearekin jokatu du 2024-2025 denboraldian. Uztailean aurkeztu zuten atezaina lehen taldeko kide gisa Anoetako zelaian, Garbiñe Etxeberria kirol zuzendaria ondoan zuela. Lehen taldeak «etorkizuneko proiektu gisa» egin zuen apustu.

Maddi Agirre, Euskadiko zailtasun txapelketa

ORDIZIA— Maddi Agirre eskalataile ordiziarrak Euskadiko zailtasun txapelketa irabazi zuen maiatzean, Derion jokatu zen norgehiagokan. Aurtengo denboraldian lehendabiziko podiuma duen arren, 18 urtez azpiko mailan lehenengo urtea du ordiziarrak, eta dagoeneko, Europako txapelketetarako jauzia eman du.

Hamar urteren ondoren, atsedean hartu du Maldan Behera taldeak

LEGAZPI— Goitibeheren mundua astintzeko helburuz Legazpin sortu zen Maldan Behera taldeak 10 urte bete ditu, eta urteurrena ospatzearekin batera, partaideek atsedeanaldi bat hartzea erabaki zuten. Legazpiko goitibehera txapelketarekin itxi zuten etapa, ekainaren 1ean, eta bide guztian zehar, Sptunik goitibeherak patentatzea, Europako Kopa Legazpira ekartzea eta Euskal Kopa sortzea izan dira taldearen lorpen handienak.

Osaera

Hiru legazpiarrek sortu zuten taldea: Julen Agirreburualdek eta Iker eta Aitor Ariztik. Gutxira Oñatiko zein Urrietako jendea elkartu zitzaizen, eta bi legazpiar gehiago, Iñaki Lizarralde eta Andoni Aizpeolea. Batzuk utzita zuten taldea, baina azken bi legazpiar horiek eta Agirreburualdek jarraitzen zuten, baita azkeneko elkartu zaien Igorreko Unai Loiola ere, batez ere sputnik ekitaldietan laguntzen. ● **IV**

Bost goierritar Parisko Olinpiar Jokoetako norgehiagokan

● **Urrezko domina eskuratu zuen Turrientesek, eta brontzezkoa Gartzandiak.**

● **Hemezortzigarren bukatu zuen errepideko proba Aranburuk.**

A.M / I.V

GOIERRI— Azkenengo Parisko Olinpiar Jokoen zeharo eman zuten beretik, bost goierritar lehiatu baitziren. Taldekako kiroletan, futbolean, Irene Paredes legazpiarra, Elene Lete zumarragarra eta Beñat Turrientes beasaindarrak aritu ziren, eta eskubaloian, berriz, Imanol Gartzandia urretxuarra. Txirrindularitzan ere izan zuen Goierri bere ordezkaria: Alex Aranburu ezkiotarra.

Dominen lehia estua

Futbolean, zapora gozoarekin itzuli ziren Euskal Herrira. Izan ere, Espainiak urrezko domina



Irene Paredes futbol jokalarik legazpiarra. GORKA GOMEZ

irabazi zuen gizonezkoen futbol txapelketan, Frantziari 5-3 irabazita. Turrientes beasaindarrak gutxitik askora igaro zen jokatu-tako partiduetan: multzokako lehen neurketan, hondarreko lau minutu besterik ez zituen jokatu; bigarrenean, hamairu minutu; eta azkeneko, titular atera zen, 63 minutu jokatu. Finalean ere

jokatzeko aukera izan zuen beasaindarrak.

Emakumezkoen taldeak, ordea, ezin izan zuen txapelketako hirugarren postua lortu, Alemaniaren aurka 1-0 galduta ondoren. Hala ere, brontzezko dominaren lehia, Paredes legazpiar zentralak partiduen gehiengoak oso-osorik jokatu zituen. Letek,

ordea, hirugarren atezaina izanik, zaila eduki zuen Jokoen debuta egitea.

Futbolekin bakarrik ez, eta Imanol Gartzandia eskubaloilariak ere brontzezko domina irabazi zuen Parisko Olinpiar Jokoen, Espainiako selekzioarekin Esloveniari 23-22 irabazi eta gero. Jokoen izandako partiduei erreparatu gero, oro har, behetik gorako maila-hobekuntza nabarmena izan zuen eskuin lateral urretxuarrak; hasierako zarpikoen artean jokatu zituen partidu asko.

Aranburu hemezortzigarren

Lehia sartzen azken goierritarra Alex Aranburu ezkiotarra txirrindularia izan zen, errepideko txirrindularitza proban lehiatuta. Lasterketa arrotza izan zen: 90 ziklistak soilik hartu zuten parte, 55 talde olinpikoetakoak, eta taldeak ere murriztak ziren, lau txirrindularikoak gehienez. Lasterketaren kontrola eragotz zezakeen ezaugarria zen hori, eta hala izan zen. Oier Lazkano gasteiztarrekin batera egin zuen proba Aranburuk, eta hemezortzigarren bukatu zuen errepideko proba. ●



ZUGAZTIBI

- aholkularitza
- bitartekaritza zerbitzua
- higiezin agentzia
- abokatuak

Domingo Unanue plaza, 5 behea ORDIZIA zugaztibi@zugaztibi.eu
T: 943 161 558 M: 639 957 489



Autonomoak eta enpresak
Laborala
Kontabilitatea
Fiskala
Juridikoa

Abokatua: Mila Sukia Galparsoro

www.ikm.net
Mallutz industria gunea ORDIZIA
Tel.: 943 88 21 06



Iturgintza
Berogintza

☎ 943 88 80 29 faxa: 943 16 14 64
gaztelu.koop@gmail.com
Esteban Lasa, 7 BEASAIN

Gorka Izagirrek txirrindularitza profesionala utzi du

● Erabakia hartu zuenetik, barne borroka batean egon da.

● Talde aldaketaren eragina tarteko, urterik okerrenaren balantzea egin du.

● Denetara, bederatzi garaipen lortu ditu profesionalean.

Izaro Villarreal

ORMAIZTEGI— Gorka Izagirre ormaiztegiarrak txirrindularitza utziko zuela iragarri zuen urrian. Martxoan dagoeneko erabakia hartua zuen txirrindulariak, eta ordutik, barne borroka batean murgildurik igaro zuen urte osoa, denboraldia amaitzeko gelditzen zen denbora luzea baitzen orain-

dik. Azkenean, baina, buruak «nahikoa» esan ziola agertu zuen; tartean faktore asko izan badira ere, gakoa buruan egon da bere esanetan: kirol mailan, orain arteko urterik okerrenaren balantzea egin zuen, nagusiki talde aldaketak izan duen eraginagatik, ez baita «inoiz Cofidisen egokitu». Ildo horretatik, beraz, gutxi disfrutatutako urtea izan duenez, horrek bultzatu zuen goierritarra erabakia hartzera, nahiz eta urtea gogotsu hasi.

Hilabete beranduago, udalak, lagunek eta kuadrillakoek antolatuta, omenaldia egin zioten Ormaiztegin, Zubipe kiroldegian, kirol lorpenez harago, pertsona gisa ere asko estimatzen baitute herritarrek.

Hamazazpi urte luze

Umetan hasi zuen Izagirrek bizikletaren ibilbidea, eta umetan sortu zitzaion txirrindulari profesional izateko ametsa. Profesional eta iritsi zen gero, eta ametsak

betez joan zen pixkanaka. Ametsak, ordea, noizbehinka berpiztu behar izaten direla ziurtatu zuen, barruan daramazun grinari eutsi diezaiozun. Bere kasuan, baina, 2024. denboraldian gauzak aldatu eta agur esateko momentua zela uste zuen.

Denetara, bederatzi garaipen lortu zituen profesional gisara; horietatik hiru, Ordiziako klasikoan. Zehatzago esanda, bizitzan aurreneko aldiz Amporekin lehia-tu zen, ibilbideaz asko gozatuta, eta ibilbide bakoitza mundu bat izan arren, nabarmendu zuen Ordiziako klasikoari berehala hartu ziola neurria, nahiz eta aurreneko aldirian gauzak nahi bezala ez igaro: «Lehen aldirian azkenekoetako bat izan nintzen, baina irabazi egin nuen hurrengo urtean, Euskaltelekin».

Egindakoarekin asebeteta

Egindakoarekin «oso gustura» dagoela azpimarratu zuen, lider askoren ondoan egon izanak erabat asebetu baitzizkion barrenak. Horrekin batera, ibilbidean zehar ikasitakoak ere ekarri zituen gogora: pertsona guztiak ez direla berdinak, eta buruak eta psikologiak sekulako indarra dutela; edota lider guztiak ez direla berdinak, nahiz eta kanpotik agian itxura jakin bat eman. ●



Gorka Izagirre txirrindularia.
AIMAR MAIZ

Alex Aranbururen denboraldi bikaina

● Cofidis taldearekin ariko da datozen hiru denboraldietan.

EZKIO— Alex Aranburu ezkiotarra Espainiako txapeldun izendatu zuten ekainean, Espainiako errepedeko proba irabazi ondoren, alegia, San Lorenzo de El Escorialen (Espainia) hasi eta amaitu zen 201,6 kilometroko proba; Aranburu bakarrik helmugaratu zen, 4.39.59ko den-

borarekin, hau da, batez beste 42,3 km/h-ko abiadura aritu zen. Bere atzetik, 52 segundo-ra, Oier Lazkano taldekide euskaldun eta txapeldun ohia iritsi zen. Garaipen horrek, besteak beste, urtebetean maillot bereizgarria eramatea ahalbidetu zion ezkiotarrari.

Horren ondoren, gainera, abuztuaren 20an, Movistar Team taldea utzi eta Frantziako Cofidis taldearekin fitxatu zuen hurrengo hiru denboraldietarako. ●IV



Alex Aranburu txirrindulari ezkiotarra. MOVISTAR TEAM

Pello Olaberria, Red Bull Borako kirol zuzendari

MUTILOA— Alemaniako Red Bull-Bora-hansgrohe txirrindulari taldeko kirol zuzendari berria da Pello Olaberria (Mutiloa, 1994). Ekainean egin zion proposamena talde alemaniarrak eta ez zuen bi aldiz pentsatu erantzuna, mundu mailako talde onenetako bat baita. Besteak beste, Euskal Herriko itzuliaren antzeko lasterketak gidatzeko ardura izango du.

Itzuliak Goierri zeharkatu zuen apirilaren 3an

GOIERRI— Euskal Herriko 63. Itzuliak 40,7 kilometro osatu zituen Goierriin, apirilaren 3an. Eskualdeko bi mendate historikotatik igaro zen UCiren World Tour mailako karrera gorena. Goierri Otsaurtetik sartu zen, eta besteak beste Segura eta Idiazabal pasatu eta Olaberria igo zen. Oстера, Lazkaora jaitsi, Ataun zeharkatu, eta Lizarrustiko mendatea igota irten zen.

Sprilur  **In**

40
urte | años


Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa


LEGAZPIKO UDALA



Zure negozioa kokatzeko partzela industrialak
5.075 m²-koak

Motxorro poligonoan - Legazpi

 **Urolako Industrialdea**

943 72 47 66
urola@spri.eus



Lide Urrestarazu lehenengo, Malaysian. EMF

Lide Urrestarazu garaile Malaysian

● 45 kilometro luzeko eta 3.800 metroko desnibeiko lasterketa irabazi zuen.

● Zazpigarren izan zen sailkapen orokorrean, lau emaitza onenak eta finala kontuan hartuta.

J.Z./I.V

ORDIZIA— Lide Urrestarazu ordizierra lehen postuan helmugaratu zen azaroan Malaysiako Kailas Penang Skyrace lasterketan, hain zuzen, 45 kilometro luze eta 3.800 metroko desnibela zuen lasterketan. Merrell Skyrunner World Series txapelketaren barruko lasterketa zen hura, eta,

oro har, zirkuitu horretan, 21 proba jokatu ziren iaz lau kontinentetan; lau emaitza onenak eta finala bera hartzen dira kontuan sailkapen orokorrean. Urrestarazuk, sei egin zituen denera, zazpigarrenean erretiratu egin baitzen zaintiratu egin zuelako. Bere kasuan, zazpigarren geratu zen sailkapen orokorrean, finala Castellon jokatu ondoren.

Zegaman bosgarren

Malaysiako, baina, ez zen iazko denboraldiko garaipen bakarra izan ordiziarrentzat. Izan ere, maiatzean bosgarren postua eskuratzea lortu zuen Zegama-Aizkorri mendi maratoi ezagunean. Aurreneko aldia zuen Urrestarazuk maratoi horretan, eta etxean jokatzeko suenez, lagun eta inguruko senideen laguntzarekin, babes handia sentitu zuen karrerako ibilbide osoan zehar. Hala, Urrestarazuk dioenez, emaitza ere bide beretik iritsi zitzaion, eta denboraldiko sentsazio onenak bitzako lasterketa gisa gogoratzen du.

Lehen kontaktua, Garinen

Hamasei urterekin jokatu zuen lehendabiziko mendi lasterketa, Garinen. Orduan krosetan aritzen zen, baina krosera joan beharrean, Garinera joatea erabaki zuen, esperientzia berria probatzeko. Handik, selekzioko gazteen taldean sartzeko aukera eman zioten, Irati Zubizarreta beasaindarrarekin batera. Urrestarazuk ziurtatu duenez, «sekulako bultzadaxoa» izan zen, eta gutxika-gutxika Espainiako Kopako proba ezberdinak probatzen, giroa gustatu eta bertan jarraitzea erabaki zuen. Batek daki noiz arte iraungo duen honetan. ●

Aimar Alustiza Espainiako txapelkun pisu-jaurtiketan

GOIERRI— Txindoki Atletismo Taldearen pisu-jaurtilarien harrobiak ez du etenik, iazko emaitzek garbi adierazten dutenez. Maiz, elkarren arteko lehia ibiltzen dira Aimar Alustiza legorretarra, Zuhaitz Sukia ataundarra eta Aratz Cendon ordizierra, baina denak ala denak Odei Lopez pisu-jaurtilari ohi legorretarren aginduetara entrenatzen dute Ordiziako Altamiran.

Elkarren arteko norgehiagokan aritu dira; hiru jaurtilarietako parte hartu zuten martxoan pista estaliko Espainiako Txapelketan, emaitza bikainekin: Alustizak irabazi zuen txapelketa hogeitaz azpikoen mailan (16:91), Cendonak brontzezko domina kolokatu zuen (16:25), eta Sukia zazpigarren postuan sailkatu zuen (15:50). Hala ere, azken honek, uztailan jokatuak hiru urtez azpiko aire libreko Atletismo Txapelketan brontzezko domina eskuratu zuen. ●IV

Zaldibia herriartekoan, Iribarria mundukoan

GOIERRI— Denboraldi bikaina egin dute goierritarrek eskupilotan, bereziki herriarteko txapelketan zaldibiarrek zein mundu mailakoan Iribarria aramarrak. Hala ere, zapore gazigozoarekin itzuli ziren Zaldibiarrek herrira, ekainaren 29an Donostiako Atano III.a pilotalekuan jokatuak Gipuzkoako Herriarteko Pilota Txapelketako finala galdu baitzuten. Pilotarietako frontoian jasotako babes, ordea, ikaragarria izan zen eta are gehiago handitu



Zaldibiarrek pilotarietako harrera, herrian. IÑAKI GURRUTXAGA

zen babes hori herrira iristean, argazki, garaikurrez eta pozez betetako harrera izan baitzen. Oiarzungo Gaztelupe pilota klubaren aurka lehiatu ziren zaldibiarrek.

Ekhi Iribarria Aramako pilotariak, berriz, 22 urtez azpikoen mundu mailako txapelketa irabazi zuen abuztuan Iruñeko Labrit pilotalekuan. Buruz buru aritu zen Iker Amianorekin batera; bakoitzak bina partida jokatu, txandaka, eta Iribarriak Mexikoko Fernando Medina garaitu

zuen, bi setetan, 10-0 eta 10-1. Zehazki, abuztuaren 25etik 31ra jokatu zen Munduko Euskal Pilota Txapelketa: buruz buru, bina, zestarekin, palan, gizon zein emakume... aritu ziren Argentina, Bolivia, Kuba, Espainia, Frantzia, Mexiko eta Peru. Astebetek egon ziren kirolari guztiak elkarrekin erresidentzia batean bizitzen. Iribarriak azpimarratu zuenez, harreman ederrak egiteaz gain, bereziki gustura zegoen lortutako emaitzekin. ●IV




GABIRIAKO UDALA
DENON ESKURA

gabria.eus



GAINITZA
udala

943 88 95 64
www.gaintza.eus



ARANDIA
GARAIEA
MULTIMARKA

ESEKIDURAK
PNEUMATIKOAK
BIRPROGRAMAZIOAK
POTENTZIA TXIPAK

www.arandiagarajea.com

N-1, z/g OLABERRIA
☎ 943 88 09 47

Zegama eta Ehunmilak

● **Jornet eta Nordskar nagusi Zegaman; Fernandez eta Velasco Ehunmilak-ean.**

K.G / I.V

GOIERRI— Goierriin urtero babes izugarria jasotzen duten mendi maratoi eta trail lasterketak dira Ehunmilak eta Zegama-Aizkorri, eta iaz ere ez ziren atzean geratu. Kilian Jornet kataluniarrak ira-

bazi zuen beste urte batez Zegama-Aizkorri mendi maratona, 23. edizioan, nagusitasun handiarekin gainera. Elhousine Elazzaoui eta Bartłomiej Przedwojewskik osatu zuten podiuma, eta Aritz Egea izan zen lehen goierritarra eta lehen euskal herritarra, hamahirugarrena iritsita. Emakumeen artean, berriz, Sylvia Nordskar norvegiarrak irabazi arren, Lide Urrestarazu ordiziarrek lehen bosten artean bukatu zuen eta Malen Osa oñatiarra izan zen lehen euskal herritarra, biga-



Emakumezkoen sailkapena, tartean Urrestarazu. ROGER SALANOVA

ren postua lortuta.

Ehunmilak ultra-trailean, berriz, Fidel Fernandez kantabriarrak irabazi zuen, eta bigarren zein hirugarren postuetarako lehia estua egon bazen ere, azke-

nean, Ibon Manzidor zumaia-rra helmugaratu zen bigarren. Emakumezkoetan, aldiz, Chelo Velasco asturiarra gailendu zen ia lasterketa guztian, lehendabiziko postua lortuta. ●



SAILKAPENA

Zegama-Aizkorri

Gizonak

- Kilian Jornet Burgada (Sabadell, 3:38:07)
- Elhousine Elazzaoui (Bedano, 3:46:16)
- Bartłomiej Przedwojewski (Smolec, 3:46:54)

Emakumeak

- Sylvia Nordskar (Oslo, 4:29:12)
- Malen Osa Ansa (Oñati, 4:35:19)
- Marta Martinez Abellan (Oviedo, 4:35:39)

Beste bat Goierri Kopa Trailerako: Korosti Trailaren lehen edizioa

LEGAZPI— Mendi lasterketak gustuko dituzten hainbat legazpiar elkartuta sortu zuten Korosti Trail mendi lasterketa. 2023ko irailean elkartu zen aurreneko talde eragilea, eta azaroan eman zuten lasterketaren berri: 2024ko urriaren

13a aukeratu zuten trailerako egun gisa. Ordutik, antolakuntza eta prestaketa lanetan murgildu ziren legazpiarrak. Goierriko Kopa itxi zuen traila izan zen, gainera, eta bertan txapelkunak erabakitzeaz gain, sariak eta garaikurrak eman zituzten, txapelketa horretako hamargarren eta azken lasterketa izan baitzen. Bi probatan banatutako 400 partaide izan zituen, eta datorren urteko bigarren ediziorako langa oso altua dela adierazi zuten antolatzaileek. ●IV

BKL emakume talde berria

BEASAIN— 2024-2025 denboraldirako emakume betereko osatutako taldea sortu zuten Beasaingo BKL saskibalo klubean. Hogei emakume elkartu ziren, 35 urtetik gorakoak gehienak.



CAF

TRUST
IN MOTION

Nortek
Elektrizitate eta Sistemak S.L.

Areso 16, behea
LAZKAO

- Elektrizitatea
- Telekomunikazioak
- Informatika
- Eguzki energia

tlf. **943 088 003**
web www.nortek.eus
mail info@nortek.eus

GAMESA

LANTEGIETARAKO HORNIGAIK

943 88 00 63
gamesa@gamesa.com
www.suministrosgamesa.com
Madril-Irun 417.km-a (Olaberria)

Sprilur In
40
urte 1 años

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

LAZKAO
UDALA

Zure negozioa kokatzeko partzela industrialak
3.000 eta 4.500 m²-koak

Kanpandegi poligonoa-Lazkao

Goierri Beheko
Industrialdea

943 88 06 17
goierribeko@spri.eus

20 urte Goierriren berri ematen



GOIERRI—GOIERRIKO HITZA egunkariak 20. urte bete zituen iaz. Egun gogoangarria izan zen 2004ko urriaren 5a eskualdeko euskalgintzarentzat, euskarazko bertako lehenengo egunkariaren lehen alea argitaratu baitzen. Goierriarrak Kultur Elkartearen, Otamotz Euskal Elkartearen, Berria taldearen eta bailarako hainbat gizarte eragileren bultzadaz sortu zen, eta 20 urte aritu da Goierriren berri ematen. 20 urte pasata, esker ona adierazteko eta urteurrena ospatzeko festa antolatatu zuten hedabideak Lazkaon, goizean hasi eta iluntzera arte, 2024ko urriaren 5ean bertan, larunbatez.

Goizean, erraldoiak eta buruhandiak izan ziren, dultzaineroekin. Arratsaldean, Bakuntza taldeak alaitu zuen giroa, eta herri kirolen txanda izan zen ondoren. Zazpi herriren arteko lehia bizia ikusteko aukera izan zen. Jendez bete zen Lazkaoko plaza desafioa ikusteko. Lazkaok, Idiazabalek, Olaberriak, Gabiriak, Urretxu-Zumarragak, Ataunek eta Beasainek parte hartu zuten, eta azkenean Lazkaorentzat izan zen garaipena.

Herri kirolen ondoren, trikitilarien doinuek poteoa alaitu zuten, eta eguna amaitzeko, afaria izan zen Lazkaoko plazako frontoian izena eman zutenen artean. ●LG

GOIERRIKO HITZAK 20. urteurrena ospatu zuen 2024ko urriaren 5ean. Egun horretan, baina 2004an, lehenengo alea argitaratu zuen egunkariak, eta harrezkero eskualdeko berriak jasotzen aritu da urtez urte. Urteurrena ospatzeko musika, dantza, herri kirol desafioa eta afaria izan ziren, Lazkaon.

**ARRAINAK
ETA
ITSASKIAK**

Oriamendi, 24
Tel.: 943 160 331
BEASAIN

urrats
PODOLOGIA ZENTROA

MIREN ALVAREZ JUARISTI

943 72 52 23
Ibaeaga 31 · URRETXU
www.urratspodologia.eus

GANBO-TXIKI
tailerrak

**MEKANIKA AROZTEGIA
ETA PAKETATZEAK**

www.ganbotxiki.com
Zubi Erreka industrialdea 50 - LAZKAO
665 731 205

**GOIERRIKO
ZURAK**
Inportazioko egur biltegia
Ohol, aglomeratuak, e.a

Ibabe industrialdea, 26
943 88 80 23
LAZKAO

etxear
margo industriala

Ibaiondo Industrialdea, 2
Itsasondo
Tel.: 943 161 282
Faxa: 943 160 953



**ZEGAMAKO
UDALA**

Jose Maiora Plaza
Tel.: 943 801 115
Faxa: 943 800 073

www.zegama.eus

ELKAR

INGENIARITZA · FABRIKAZIOA · METROLOGIA

www.elkar-ingenierie.com

Arranomendia 5-I Goierriko Berrikuntza Poloa
20240 Ordizia (Gipuzkoa) ☎ +34 943 088 874

ARGI-LANA
IBABE MANTENUAK S.L.

Ur bero eta berogailuen
mantenu eta konponketak

Ibabe industrialdea, 2
LAZKAO
Tel.: 943 88 87 19

argilanacb@gmail.com